

EUSKADI EKINEZ EGINA



HAUTESKUNDE PROGRAMA UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015

EUSKADI HAZI ARAZI. HERRIZ HERRI, EKINEZ!
EUSKADI HAZARAZI. TOKIAN TOKIKO EKINTZAZ, HERRIGINTZAN



HAUTESKUNDE PROGRAMA UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015

EUSKADI HAZI ARAZI. HERRIZ HERRI, EKINEZ!
EUSKADI HAZARAZI. TOKIAN TOKIKO EKINTZAZ, HERRIGINTZAN

AURKIBIDEA

1) EAJ-PNV, tokian tokiko ekintzaren balioa aintzat hartzen duen alderdia.....	3
2) Euskadiko udaletarako eta lurralde historikoetarako erronka eta abaguneak	13
3) Gure konpromisoak:.....	21
3.1.- Enplegua sortzea, gure lehentasuna.....	22
3.2.- Pertsonak erdigunean dituen gizarte garapena.....	26
3.3.- Gardentasuna, parte hartzea eta konpromiso etikoa	36
3.4.- Kudeaketa eraginkor eta efizientea.....	38
4) Gure aktibo nagusia: gai diren pertsonak, frogatutako esperientzia eta erantzukizuna balio nagusi gisa.....	41

1. EAJ-PNV, tokian tokiko ekintza aintzat hartzen duen alderdia

EAJ-PNV, tokian tokio ekintza aintzat hartzen duen alderdia

- 1.- Hurbiltasunaren eta politika lokalaren balio estrategikoan sinesten dugu.
- 2.- Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean udalek eta foru aldundiek funtsezko zeregina dutela sinesten dugu.
- 3.- Toki administrazioak herritarrekin harremanak izateko eredu berri bat, pertsonak ekintza lokalaren erdigune dituen, sinesten dugu.
- 4.- Kudeaketaren garrantzian sinesten dugu. Eta esperientziarik handiena eta ibilbide arrakastatsua dugu egina kudeaketa lokalean.
- 5.- Gardentasuna eta parte hartzea sinesten dugu, eta toki esparrua berebiziko gunea dela politika berri bat garatzeko, politika irekiagoa eta interaktiboa.
- 6.- Etika sinesten eta praktikatzan dugu, gure jardueraren oinarritzko printzipio gisa. Konpromiso honegatik gure hautetsiei eta kudeaketa taldeei eskaerarik zorrotzena egiten diegu eta agente lokal guztiei zabaldu nahi diegu.
- 7.- Aldundi eta udal berritzaileagoetan sinesten dugu.
- 8.- Elkarlanaren eta lankidetzaren balio estrategikoan sinesten dugu.
- 9.- Euskal udalak gure Herriaren arkitektura instituzionalean behin betiko txertatuko dituen Euskal Udal Legea eduki behar dugula sinesten dugu.
- 10.- EUDELegan sinesten dugu, euskal udalen interesak defendatzeaz gain, udal eraginkorrakoak eta efizienteagoak lortzeko sinergiak bultzatzen dituen eragile funtsezko gisa.

1) Hurbiltasunaren eta politika lokalaren balio estrategikoan sinesten dugu

EAJ-PNVek eutsi egiten dio **herri proiektu oro eremu lokaletik, udaletan, abiatu eta eraiki behar** delako ideari. Izan ere, gure herri eta hirietan sustraitzen dira, hain zuzen, gure alderdiaren sendotasun faktoreak: hurbiltasuna, elkarlana, ahalegina eta nekaezintasuna.

Gaur egun, politikan eta instituzioetan zegoen konfiantzaren gainbehera bizi dugu. Zorionez, herritarrak egun jakitunagoak eta zorrotzagoak dira. Euskal herritarrek, zerbitzu bikainak nahi izateaz gain, zerbitzuok diseinatzen hartu nahi du parte eta lortutako emaitzez eta zerbitzu horien kostuez kontuak argi ematea eskatzen du. Eta esparru lokalean da herritarren eta instituzioen arteko interakzio hau zuzenagoa eta emankorragoa.

Gizarte beharren zati handi bat lurraldeari estu lotuta daude. Zerbitzu hurbilak behar ditugu gizarte zerbitzuak, etxebizitza, euskara erabiltzeko aukerak, hezkuntza eta prestakuntza, aisia, kirola eta kultura bezalako arloetan. Udalek zeregin erabakigarria jokatuko baitute zerbitzu horietan. Bai zerbitzu horietako batzuen hornitzaile izanda, bai udal bakoitzeko pertsoneri zerbitzuok baldintzarik onenetan jaso ahal ditzaten lagunduta.

Gainera, ez daukagu ahazterik lurraldearen eta garapen ekonomikoaren arteko harreman estrategikoa. **Jarduera ekonomikoak eta enplegu aukerak eremu lokalean gertatzen dira.** Funtsezkoa da udalerrri eta eskualde guztiak euren potentzial endogeno guztia garatzea, euren baliabide eta gaitasunetatik abiatuta, eta garapen hori orekatua izatea. Lurralde elkartasunean oinarrituta, oreka faktorea izango baita aukerak gure lurraldeetako txoko guztietara hel daitezen, eta horrela pertsona guztiengana irits daitezen.

Arrazoi horiekatik guztiakatik, **politika lokala giltzarri da.** Hurbiltasunagatik, ezagutzagatik, gizarte beharrikatik, **konponbideak aurkitzeko gaitasunagatik.** Eta horretarako, **gure udal eta foru lurraldeek kudeaketa talderik onenak behar dituzte, EAJ-PNVek aurkezten dituen taldeak.**

2) Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean udalek eta foru aldundiek funtsezko zeregina dutela sinesten dugu

Euskal foru erakundeak, Batzar Nagusiak eta Aldundiak, **Euskal Herriaren jatorrizko subiranotasun politikoaren zuzeneko jaraunse dira**. Mendez mende demokrazian sustraituta gaur egun arte irautea Euskal Herriaren eskubide historikoak eguneratzea ekarri du. Baina, lotura historikoetatik eta euskal autogobernurako duen garrantzitik harago, lurraldeetako organo legegile eta exekutiboak gure herriaren barne egituraketa arrakastatsua ekarri dute, bai eta lurrera eta herritarrei lotuta modu eraginkorrean gobernatzea ere. Aldundiak lurraldea egitura-tzeaz eta modernizatzeaz arduratzen dira. Zerga askitasuna eta gure Ongizatearen Gizarteak behar dituen zerbitzuak bermatzea da, gaur egun, aldundien helburu nagusia.

Oraingo **euskal erakunde sarea** konplexuegia dela diotenen aurka, egungo Euskadiren botere sistema mailakatuak, EAJ-PNVen iritziz, bere bideragarritasun eta eraginkortasun guztia bere hartan mantentzen du. Subsidiaritasun printzipioaren mendean, EAEko eta Nafarroako instituzioek osatzen duten sistemak, noizbehinkako desadostasunen gaintik, **oraingo euskal gizartearen gure inguruneko aurreratuenetako bat izatera eraman du, proiektio handiagoarekin eta barne kohesio sendoagoarekin**.

Udalok eta aldundiok frogatu egin dugu kudeaketa hurbilaren eraginkortasuna. Aurpegia eta begiak dituen gobernuarena. Herritarrekiko elkarbizitzaren mailatik gainerako instituzioetarantz gorakako eskaera kate bat aktibatu dugu. Herritarren beharretara egokitutako erantzun errealak, publikoaren balioa indartzen duten erantzunak, eskaintzeko gaitasunarekin.

Bereziki garrantzitsua da udalerrri txikien zeregina. Hegoaldeko 477 udalerrien % 80 baino gehiago 5.000 bizilagun baino gutxiagoko «udal txikiak» dira, gure identitatearen funtsa osatzen dutenak, biztanleria lurraldean finkatzen dutenak, lehen sektoreak gure ekonomiari ematen dionaren balioa dakartenak, eta gure Herriaren ingurumen iraunkortasunean eta paisaiarenean oinarritutakoak dira.

3) Toki administrazioak herritarrekin harremanak izateko eredu berri bat, pertsonak ekintza lokalaren erdigune dituenak, sinesten dugu

EAJ-PNVen uste dugu **herritarrak ez dira gehiago "administratuak" ez zergapekoak; lankideak dira**, euren garapen sozial eta ekonomikoarekiko konponbide integralak eskatzen dituztenak.

Ikuspegi honetatik, toki erakundeak, eta berezi-bereziki udalek, berebiziko erantzukizuna hartzen dute **herritarren beharrak identifikatzen eta horiei arreta pertsonalizatua ematen, bai behar diren zerbitzuak eskainiaz bai solaskide bilakatuaz** delako eskumena duten udalaz gaindiko instituzioen aurrean.

Erantzun hori kasurik gehienetan zerbitzu prestazioaren bitartez ematen da, hasierako arretan zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa emanda. Fase honetan, "lankide ikuspegia" udalerako beste arreta eredu bat da, toki administrazioa hurreratzen den pertsonaren egoera ulertu eta ikuspegi integral batetik erantzutea oinarri duena. "Kontua ez da izapideak edo zalantzak konpontzea, arazoak konpontzea baino".

Toki administrazioa herritarren elkarbizitza eta zerbitzu gune lehena izanik, euskararen garapen betea bultzatuko dugu zerbitzu hizkuntza gisa herritarrei euren aukerako hizkuntza ofizialean arreta ematea bermatzeko.

Harreman eredu berri honetan urrats bat gehiago dago: **zerbitzu publikoak elkarrekin sortzea**, horren bitartez horien hartzaile diren pertsonen parte hartzen dute diseinutik. Esperientzia arrakastatsuak ditugu eredu honetan, etapa berri honetan indartu behar ditugun esperientziak.

4) Kudeaketaren garrantzian sinesten dugu. Eta esperientziarik handiena eta ibilbide arrakastatsua dugu egina kudeaketa lokalean

Herritarrarentzako zerbitzua hobetzea udalgintzaren eta forugintzaren funtsa da. Gure erronkak, herri bat garen aldetik, zerbitzu lokal aurreratuak lortzea izan behar du, parte hartzean eta gardentasunean sustraituko diren zerbitzuak, eta herritar guztiak berdin hartuko dituztenak, bizi diren lekuan bizi direla. Herritarragandik hurbil daudenez, udalek eta aldundiek herritarren beharrak ezagutu behar dituzte eta eskaintzen dituzten zerbitzuak haiei egokitu, komunikatzeko bideak ezarriaz eta berritzeko gaitasunak garatuaz, bai zerbitzuetan euretan bai zerbitzuok emateko moduan.

Jarduera hau guzti hau efizientzia irizpidearen mendean garatu behar da, are gehiago, ekintza lokalaren justifikazioa, neurri handi batean, herritarrakandik hurbilen dagoen erakunde maila denez, egoera pribilegiatuan dagoelako. Eta, jakina, ekintza lokala beti gidatu behar duen zorrotzasun ekonomikoaren printzipioa aplikatuta, are gehiago oraingo egoeran.

Errealitate honek kudeaketaren bikaintasuna eskatzen du. Elementu horrek ere bereizten gaitu, izan ere **EAJ-PNV da lan ahalmena eta emaitza guztiz frogagarriak aurkez ditzakeen bakarra printzipio horiek errealitate bihurtzeko.**

Euskal gizarteak badaki EAJ-PNVek borondatea, gaitasuna, prestakuntza eta esperientzia duten giza taldeak dituela. Gure toki erakundeek gaintu behar dituzten erronkek lidergoa behar dute, eta kudeatzeko gaitasuna eta gobernu esperientzia duten taldeak ere bai, profesionaltasunean, zorrotztasunean, arduran eta erakunde bakoitzaren interesen defentsan oinarritutako lan eredu batekin, baina beti Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoan guztien ongia bilatuta.

EAJ-PNVen programako helburuetako bat kudeaketari dagokionez, foru erakundeetan, gure lurralde historikoetan **zerga iruzurraren aurkako borrokan eraginkortasuna eta efizientzia** handitzen jarraitzea da. Zerga iruzurraren aurkako borrokan errukigabeak izaten jarraitu beharko dugu, foru ogasun bakoitzari zergadun bakoitzak –pertsonek eta enpresak- dagokiona ematen diola bermatuaz. Ez euro bat gehiago, ez euro bat gutxiago. Gainera, zorrotzasun maila bera aplikatu behar zaio **gizarte laguntzen iruzurraren kontrolari**. Gizarte laguntzak bai, jakina, baina benetan behar dituzten eta hartarako eskubidea duten pertsonen ematen zaizkiela ziurtaturik.

5) Gardentasuna eta parte hartzea sinesten dugu, eta toki esparrua berebiziko gunea dela politika berri bat garatzeko, politika irekiagoa eta interaktiboa

Administrazioak herritarrekin duen lehen harreman lerroa osatzen dute udalek.

Politika egiteko modua eta publikoa gobernatzeko era onerako eta betiko aldatu dela ulertzen du EAJ-PNVek: **parte hartzeko politika gure gizartera bertan garatzeko heldu den iraultza bat da. Demokrazia eta herritarren parte hartzea kontzeptu osagarriak dira. Eta EAJ-PNVen argi eta garbi egiten dugu parte hartzearen alde.**

Parte hartzeak orotariko esparruak hartzen ditu: herrialde mailako egoera politikoaren konponbidearekin zerikusia duten ekinbideetatik hasi eta gure herri eta hiriek hobeto funtziona dezaten hartu behar diren erabaki txikietaraino. Baina begi bistakoa da **parte hartzeko lekurik naturalena eremu lokala dela.**

EAJ-PNV, azken baten, alderdi udalzalea da, zerbitzu publikoaren bokazioa duena, liderra eta udaletan bere gain hartzen dituen eskumenen erantzule. Hori guztia gardentasunik gardenenaren ikuspegitik. **Gardentasuna eta kontuak ematea legezko eginbeharra baino askoz harago doan konpromiso baten modura ulertzen dugu**, herritarren eskaera bat baino ere harago doana. EAJ-PNVen uste dugu **gardentasuna dela gure herritarrak gure udalen dinamikan eta etorkizunean inplikatu ahal izateko behar den baldintza**. Eta ez dugu bakarrik uste, gainera frogatu egin dugu, **izan ere gobernatzen ditugun udalerrietako asko aitzindariak dira gure kudeaketari "herritarrek kontuak hartzea" ahalbidetzen duten gardentasun atariak martxan jartzen.**

6) Etika sinesten eta praktikutzen dugu, gure jardueraren oinarritzko printzipio gisa. Konpromiso honegatik gure hautetsiei eta kudeaketa taldeei eskaerarik zorrotzena egiten diegu eta agente lokal guztiei zabaldu nahi diegu

Gardentasuna bezala, jokabide etikoa ere, gobernu ekintzan oinarritzko printzipio bat ez ezik, oposiziotik jardun dugun instituzioetan ere eskaera nagusietako bat izan.

Gure hautetsien eta kudeaketa taldeen konpromiso etiko hau berresten dugu 2015-2019 agintaldirako. Eta jokabide hori instituzio eta erakunde publikoen eremura ez ezik, gizarte zibilarenera, enpresetara, gizarte-eragileetara, herritarrengana ere zabaltzea nahi dugu. **Gardentasunik, zintzotasunik, onestasunik eta ahaleginik handiena balioztat hartuta baino ezingo ditugu eraiki udal eta lurralde oparago eta kohesionatuagoak.**

7) Aldundi eta udal berritzaileagoetan sinesten dugu

Gure udalerrien eraldaketa sakona eta toki administrazioaren modernizazio erabatekoa, antolakuntza eta kudeaketa eredu berriez baliatuta, gure herri eta hirietan bizi kalitatea hobetzearekin batera etorri dira. Baina oraindik geratzen dira gora handiko erronka sozialak, **toki administrazio berritzaileago eta efizienteagoa** eskatzen dutenak.

Enpresek euren antolakuntzan eta euren prozesuetan bilakaera bat izan duten bezala, toki administrazioak berritu egin behar du **kudeaketa eredu berrietara eta teknologia berrietara egokitzeko** eraginkorragoa eta, batez, ere, efizienteagoa izate aldera. Berrikuntza horiek indar berezia jarri behar dute toki administrazioan lan egiten duten pertsonengan, izan ere beraiek gabe ezinezkoa da inolako aldaketarik egitea. Udalak ahalduntzea nahi badugu, udal langileak ere etengabeko hobekuntzaren helburuan sartu behar ditugu, batez ere hobekuntza teknikoan, hartarako tresnak emanda.

Informazioaren gizartean, herri erakundeek ezin dute itxaron pertsonak haiengana hurbildu arte, aitzitik, **komunikazio aktiboaren ikuspegia hartu behar dute, Administrazioa pertsonengana hurbilduko duena**. Toki administrazioaren kasuan komunikazio estrategia berri horrek teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeretan oinarritu behar du, zuzeneko komunikazioa bideratzen baitute, kostu gutxiagorekin eta informazio bolumena hartzeko ahalmen handiagoarekin, eta euskarri tradizionalak ikus-entzunezko edukienak bezalako euskarri berriekin konbinatzen dituzten tresnen bitartez eskaini baitaitezke.

XXI. mendeko administrazioaren beste erronketako bat **etengabeko ebaluazioa egin beharra** da, egiten diren politikak egokiak diren aztertzeko eta bilatutako helburuetara hobeto egokitzen diren politika berriak bideratzeko.

Teknologia berriek, gainera, Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak bide elektronikoetatik egiteko aukera ematen dute (e-Administrazioa), presentziazko zerbitzuak osatzeko. Horren aldaketa garrantzitsua aktibatzeak ez dio soilik formari eragiten, sakonekoari ere eragiten dio. Aurre egiteko kultura aldaketari eta antolakuntza eraldaketari dagokienez iraultza honek dakarren konpromiso politikoa gure gain hartu behar dugu udalok. **Administrazio Irekia (365/24), irisgarria, efizientea, errealitateari egokitua eta kalitate handikoa da erronka. Eta aukerak, ikaragarriak dira, zerbitzu hobearen eta kostuak aurreztearen ikuspegitik.**

8) Elkarlanaren eta lankidetzaren balio estrategikoan sinesten dugu

Lankidetzaz giltzarri den balio bat da egungo gizarteetan. **Etorkizuna «elkarrekin» da. Aldundi eta udaletatik gure elkarlan politika areagotzeaz gain, lan ildo estrategikoa izatera eraman behar dugu.** Beti eta denaren ginetik herritarren interesak jarrita.

elkarlanean eta lankidetzan gehiago jardun beharra dago kanporantz eta baita barrurantz ere. Kanporantz, beste instituzio batzuekin, gure herritarrei eta gure enpresei eragiten dien guztian. Eta barrurantz, lurraldeko eragileen artean interakzio eta lankidetzaz guneak bideratuaz. Sareak, lantaldeak, eztabaidaguneak... Helburu bakoitzari ondoen doakion modua erabilita, baina beti gehitzekotan.

Zehazki, lankidetzaz publiko-pribatua sendotu behar dugu, bai enpresekin bai Hirugarren Sektorearekin. Subkontratazioa baino harago doazen eta erantzulekidetasunaren esparruan aurrera egiten duten formula berrien bila, helburuetan bat eginda eta zeregin osagarriak eginkizun hartuta. Elkarrekin lan eginez denon onerako, guztion ongiaren bila. **Elkarrekin, gehitu egiten baitugu.**

9) Euskal udalak gure Herriaren arkitektura instituzionalean behin betiko txertatuko dituen Euskal Udal Legea eduki behar dugula sinesten dugu

Udalen zeregina are gehiago aitortu behar da, instituzio multzoan benetako boterea delako. EAJ-PNV uste du gure udalen adin nagusitasuna aitortu behar dela, azken hogeita hamar urteotan gehien aldatu diren erakundeak baitira, gizartearen errealitateara egokituaz eta gainerako erakundeekin lankidetzan. Eta zerbitzuak eta lurraldearen antolamendua maila gorenean ematen. **Udal maila herrialdearen hirugarren ardatz modura hartu behar dugu.**

Une historikoa da euskal udaletarako. Udal Lege bat lortzea egiteke den erronka da gobernu lokalotarako, aspaldidanik egiteko aukerak. EAJ-PNVetik prozesu bat bultzatu eta aktibatu dugu lortzeko.

Udal Lege bat hobetzeko; ez desegiteko. Baliokoa baino gehiago dela erakutsi duen sistema bat hobetzeko.

Ondo gabiltza, oso ondo herrialde gisa. Baina beti egin daiteke hobeto. Eta Udal Legearen helburuak horixe izan behar du. Ondo bagaude, hobeto egoteko. Nola? **Udalak herrialdearen instituzio sarean txertatuta.** Bide paralelorik gabe eta eztabaida zahar eta antzurik berriro ekarri gabe. Udal autonomia sendotu behar da, udalei ikusgaitasuna instituzionala eman, eskumen propioak dituzten udalerririk lortu, eskumenok egikaritzeko finantzaketa egoki edo nahikoa (ez baldintzatua) edukitzea aitortuz. Hau da, **eskubideak eta betebeharrak hartzea.**

10) EUDELegan sinesten dugu, euskal udalen interesak defendatzeaz gain, udal eraginkorragoak eta efizienteagoak lortzeko sinergiak bultzatzen dituen eragile funtsezko gisa

Udalen solaskide gisa EUDELen aitorpena bultzatu behar dugu. Gainerako erakundeekiko eta baita Europaren eremuan ere **eledun gisa, koordinatzaile bezala eta udal balio eta interesen sustatzaile moduan egiten duen lanari balioa eman**. Gure udalerrien ahotsa da, eta horrek aukera ematen du toki botereak beste botere batzuekiko harremanean pisu espezifiko irabazteko (solaskidetza gaitasun handiagoa eta erabaki politiko eta ekonomikoak hartzen diren antolakundeetan eragimen handiagoa), adostasunaren ikuspegitik hainbat instituzioerekiko solaskidetza ahalmena izateaz gain.

EUDELeK, gainera, **Udalei zerbitzuak errazten** dizkie bere lanean, udalek lana eraginkortasun handiagoz egin dezaten, udalen koordinatzaile lana bere gain harturik **esperientzien eta jokabide egokien elkartrukea sortze aldera, sinergiak sustatuaz**.

EUDELen zeregin instituzional eta operatiboa sendotu behar dugu, euskal udalgintzaren giltzarri den tresna ez ezik, gure herri eta hirien garapenaren beraren giltzarri den tresna bat delako.

2. Euskadiko udaletarako eta lurralde historikoetarako erronka eta abaguneak

Gure diagnostikoa: alde positibo oso garrantzitsuak dauzkagu, eutsi eta sendotu behar ditugunak

EAJ-PNVek Euskadiko udaletan eta lurralde historikoetan egin duen kudeaketari esker, **indargune oso garrantzitsuak** garatu dira, gure oraineko eta gure etorkizuna finkatzeko giltzarri direnak:

- **Emakume eta gizon prestatuak eta balioak dituztenak** dauzkagu, gizarte moderno, prestatu eta zorrotza osatzen duten balioak dituztenak.
- **Munduko giza garapen indizerik altuenetakoa** daukagu, Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) landutako adierazlearen arabera; hau da, besteak beste, bizitzeko esperantza, heziketa maila eta errenta eskuragarria neurtzen dituen adierazlearen arabera.
- **Erreferentzia diren enpresen egoitza** gara (horietako batzuk munduan punta-puntakoak dira), enplegua sortzeaz gain lurralde historikoetarako eta Euskadi osorako zerga bidezko diru sarreren iturri oso garrantzitsua hain zuzen. Gainera erreferentzia zentro garrantzitsua gara automobilgintza, aeronautika, makineria eta kapital ondasunak eta energia bezalako sektoreetan, eta gero eta garrantzitsuagoa goraka datozen sektore berrietan, hala nola, biozientziak eta osasuna, IKT eta sorkuntza eta kultura industriak.
- **Sistema zientifiko-teknologiko bikaina** ere badaukagu; tartean, euskal udal eta lurraldeetako enpresen garapenerako erreferentzia eta giltzarri diren unibertsitateak, ikerketa zentroak eta zentro teknologikoak.
- Gero eta ekonomia **irekiagoa eta nazioartekoagoa** daukagu, eta, krisia gorabehera, gure ekonomiaren ehunak hobetu egin du nazioarteko ingurugiroan duen posizioa.
- **Turismoa erakartzeko gaitasun** handia daukagu, eta bultzatu dugu. Guztira, Euskadik urtean 2.500.000 bisitari baino gehiago jasotzen ditu, eta horietako 10etik 4 nazioarteko turistak dira. Aktibo turistiko garrantzitsuak dauzkagu, nazioartean ezagunak eta aitortuak, hiru lurralde historikoetan. Turismo jarduera horrek BPGd-ri ekarpen handia egiten dio hiru lurraldeetan, % 6 ingurukoa.
- **Barne eta kanpo konexio-ahalmen bikaina** daukagu, garraio publikoaren sistema oso eta efizientea barne. Gure aireportuek azpiegitura bikainak dauzkate bidaiarien eta salgaien garraiorako, egunero 30 konexio eta 4 milioi pasaiari urtean. Gure garraio publikoaren sistemari balorazio eta asebetetasun indize altu-altuak ematen dizkiote erabiltzaileek. Eta ezin ahatz dezakegu gure portuek gure lurraldeen garapen ekonomikorako duten trakzio efektua.
- **Ingurumen arloan erreferentzia** bat gara, eta hondakin bilketa selektiboa eta saneamendu eta ur arazketa sistemak dituzten biztanleriari dagokionez Europako erreferentzia direnekin homologagarriak diren adierazleak ditugu. Gure birziklatze mailak Estatuko altuenak dira oro har.
- **Gizarte zerbitzuen arloan ere erreferentzia** gara. Adinekoentzat, desgaitasunak dituzten pertsonentzat, gizartetik baztertuta dauden pertsonentzat, adingabeentzat eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat egoitza-leku eskaintza zabala daukagu. Gainera, gizarte euskarri eta gizarteratze tresna funtsezkoak garatu ditugu, hala nola, DSBE, oraingo ekonomia eta finantza krisiaren ingurugiroan gizartearen kohesioa bermatzeko giltzarri diren tresna direla agerian utzi dutenak.

- **Gizarte eta elkarte ehun aberatsa** daukagu. Irabazi asmorik gabeko milaka elkarte, fundazio eta bestelako erakunde, herritarrek gizartearen bizitzan parte hartzeko bide ematen dutenak eta, kultura, heziketa, kirol, osasun-sustapen... jardueren bitartez, garapen pertsonalerako eta udalerrietako biztanleriarentzat zerbitzu erabilgarriak emateko bide bikaina direnak.
- **Gardentasun arloan ere emaitza onak** lortzen ditugu. Transparency Internationalek landu dituen azken gardentasun indizeetan euskal udal eta aldundiek oro har oso emaitza onak lortu dituzte, eta orokorrean Estatuaren barruan erreferentzia dira.
- **Denon eskura dauden kultura programazio eta azpiegiturak** dauzkagu, mundu mailan erreferentzia diren azpiegiturak ditugula hiru lurralde historikoetan.
- **Geure hizkuntza, euskara,** daukagu, eta berorren erabilera udalen eta aldundien jardueran guztiz normalizatu nahi dugu, bai zerbitzu hizkuntza gisa bai lan hizkuntza bezala.
- **Kirola eta ohitura osasungarriak** balio bihurtu dituen eta are kirolariagoa eta osasuntsuagoa izateko behar dituen erraztasun guztiak eman behar zaizkion gizarte batean bizi gara.

Aldi berean, oso erronka garrantzitsuei aurre egiteko lanean jarraitu behar dugu

Gure udalerrri eta foru lurraldeek garapen ikaragarria bizi izan dute demokrazialdiko gobernu lokalen hogeita hamarretik gora urte hauetan. EAJ-PNVek gobernatutako toki erakundeek efizientzia eta iraunkortasun irizpideen mendean garatu dute kudeaketa lana, gero eta kohesiona-tuagoak eta gero eta elkarri lotuagoak dauden lurralde hauetan, nahiz eta, hala ere, oraindik gainditu beharreko erronkak dauden:

- Zalantzarik ez, konpondu beharreko lehen erronka **lanik eza** da. Ekonomia eta finantza krisiak batez ere eraikuntzari eta higiezinaren jardueri eragin die, baina industria sektoreari ere bai, hots, gure ekonomia egituraren elementu enblematiko eta bereizgarri bati. Ondorioz, langabezia orokorrean handitu egin da, gazteen taldeari gehiago eraginaz. Korrelazio handia dago prestakuntza mailaren eta langabezia tasaren artean, izan ere kualifikazioa hobetu ahala enplegu aukerek nabarmen egiten dute gora; horregatik gaikuntza, bai hasierakoa bai etengabeko ikas-kuntza enplegu bermerik handiena dela dirudi epe luzera, eta, beraz, gure lurraldeek bultzatu behar dituzten estrategia argietako bat izan behar du horrek.
- **Industriaren pisua** berreskuratu behar dugu, industriak kalitatezko lantokiak sortzen dituelako eta lantoki indutituak ugaltzen dituelako. Industria izan da krisialdia hobeto eramaten lagundu diguna, eta industria izango da, XXI. mendera egokituta, etorkizun oparago baterantz aurrera egiten lagunduko diguna.
- **Espiritu ekintzailea** berreskuratu behar dugu, Euskadiko udaletan eta lurralde historikoetan bereizgarria izan baita. Pertsona ekintzaile gehi-go behar ditugu, eta laguntza tresnak indartu behar ditugu, pertsona horien ekimenak lanpostu berriak hezurmani ditzan.
- Enpresa ehun aberatsa daukagu, baina **gure enpresak konparazioz txikiak dira**. Enpresen arteko partzuergoak eta bategiteak bultzatu behar ditugu tamaina hartu eta nazioartean lehiatu ahal izateko.
- Aurre egin behar diogun beste erronketako bat **zahartzea** da. 2020an bizitzeko esperantza 90 urtera hurbilduko da emakumeentzat eta 85era gizonentzat, eta 85 urtetik gorakoak Euskadiko biztanleria guztiaren % 4 izango dira. Gertaera on horrek (bizitzeko esperantza handiagoa eta gure adinekoen bizi kalitate hobea) errealitate berri horretatik eratorriko diren erronkei aurre egiteko behar diren orotariko laguntza zerbitzuen plangintza egitea ere eskatzen du (osasuna, sorospena, aktiboki zahartzeko laguntza).
- Aurreko zertzeladari lotuta, **gure zerbitzu eta gizarte-laguntza sistemaren iraunkortasunari** eusten jarraitu behar dugu. Gizarte zerbitzuek pertsona baten duintasun atalasea markatzen dute, baina kontuan hartu behar da aurrez aurre izango dugun errealitatea zein izango den, izan ere, datozen 15 urteotan, demografiaren bilakaeragatik, gizarte zerbitzuen arreta beharko duten pertsonen kopurua bi bider handiagoa izango da, eta gainera eskaera are handiagoa izango da gizarte eta familia aldaketak direla-eta pertsonen arreta eta zaintzaren erantzukizuna gero eta gehiago Administrazioari egozten baitaio. Horretarako, ildo osagarri bitan egin behar da lan:
 - **Pertsona gehiago artatu ahal izateko baliabideak optimizatzen**. Efizientzian irabazi behar dugu zentzuzko kostuetara heltzeko.
 - **Gizarte laguntzen kontrola** hobetzen. Zerga iruzurrari ezin amore eman diezaiokegun bezala, ezin diezaiokegu amore eman gizarte iruzurrari.

- Aurrerakuntza nabarmenak gertatu diren beste esparru batzuk daude, baina horietan ere lanean jarraitu behar dugu. Bat **euskararen** erabilera da, asko aurreratu badugu ere, oraindik gizarte erabileran aurrera egiteko asko geratzen baita. Horregatik euskararen eta gaztelaniaren gizarte parekotasunera hurbilduko gaituen hizkuntza politika bultzatuko dugu. Antzekoa da egoera **genero berdintasunaren** arloan, aurrerakuntzak nabariak baina oraindik zeregina franko geratzen baita berdintasun oso-osoaren helburu ezinbestekoa lortu arte.
- **Udal bakoitzaren indarguneetan oinarritutako garapen orekatu** bat bultzatu behar dugu, eta **lurralde historiko eta udal kohesionatuak** sustatu behar ditugu, oinarritzko zerbitzu bikainak lurralde guztiei eta pertsona guztiei eskaintzeko.
- Beste erronka handi bat **gure ongizate eta gizarte-babes mailari eusteko gure zerga ahalmena hobetzea** da. Horretarako, 2 ildo osagarritan egin behar dugu lan:
 - **Dauzkagun enpresak zaintzen eta enpresa berriak erakartzen.** Ez baitezakegu ahatz lurralde historikoetan kokatutako enpresek euren zerga bilketaren zatirik handiena zuzenean ematen dutela (batez ere Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren bitartez), sortzen duten enpleguaz gain.
 - **Zerga iruzurraren kontra irmo borrokan jarraitzen.** Iruzur egindako euro bakoitza gure gizarte politikerara bideratu dezakegun euro bat gutxiago da.
- **Administrazio moderno, garden eta hurbilago** batean aurrera egiten jarraitu beharra. Herritarrekiko harremanean sinpleagoa den Administrazioa, burokrasia gutxitzen duena eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeretan are gehiago bermatzen dena.
- Erronka bat baino gehiago, betebeharrak bat da herri gisa ditugun nortasun ezaugarriei eustea, **kultura politika iraunkor, aktibo eta munduari irekitako baten** bidez indartzea.
- **Europa 2020 estrategiarantz** urratsak ematen jarraitzea (berotegi efektuko gasen emisioak % 20 murriztea, energia berriztagarrien erabilera % 20 handitzea eta energia efizientzia % 20 hobetzea).
- Eta, azkenik, kudeaketa zintzo eta profesional baten bitartez gainerakoei zerbitzu publikoak **merezi dien duintasuna eta errespetua itzultzen eta jarduera politikoa normalizatzen** laguntzea dugu erronka.

Nahi ditugun udalak eta lurralde historikoak

- 1.- **ABAGUNEEN LURRALDE** diren udalerrri eta lurralde historikoak ⇔ Udalerrri eta lurralde historiko erakargarriak behar ditugu, enpresen agendan eta nazioarteko talentuarenean daudenak. Kanpoko bultzada horri gure herritar eta enpresen dinamika ekintzailea bera gehituta, enplegu gehiago eta oparotasun handiagoa ekar dezaketen abaguneak sortu ahal izango ditugu, nahitaezkoak baitira gizarte zerbitzuak eta kalitatezko zerbitzu publikoak eduki ahal izateko, esate baterako berdintasun handiagoa lortzeko gizarte zerbitzuak eta kultura bezalako esparruetako zerbitzu publikoak.
- 2.- Udalerrri eta lurralde historiko **EKINTZAILE, BERRITZAILE ETA SORTZAILEAK** ⇔ Tradizioz bereizi gaituen indar ekintzailea berreskuratu behar dugu. Sormena, ahalegina, berrikuntza eta ekintzailtza hezkuntza eta gizarte esparru guztietan barneratu eta garatu behar ditugun balioak dira. Eta Euskadiren txoko bakoitzean ekintzaile direnei laguntzea eta aitortzea.
- 3.- Udalerrri eta lurralde historiko **INDUSTRIAL ETA LEHIAKORRAK** ⇔ Lehiakortasuna inoiz amaitzen ez den bidaia bat da. Lurralde bat lehiakorra da bere enpresak, pertsonak et instituzioak badira. Lehiakorra izatea ez da prezioak ez soldatak jaitea, balio erantsia ematea baino. Industria aurreratua eta XXI. mendeko fabrikak gure egitura ekonomikoaren giltzarriak izan behar dute.
- 4.- Udalerrri eta lurralde historiko **KUALIFIKATUAK** ⇔ Prestakuntza erabakigarria bada pertsona baten garapenean, etorkizuna duen gizarte bat herritar kualifikatuetan oinarrituta baino ezin eraiki daiteke. Ezagutzaren gizartean bizi gara, eta horrek esan gura du etengabeko ikasketzaren balioa barneratu behar dugula, denoi dagokigun lana berriz: herritarrei, enpresei, gizarte eragileei eta Administrazioari berari. Ezin dugu onartu prestakuntza faltak gure herritar-sektore batzuk egiturazko langabeziara eta gizartetik kanpo geratzera kondenatzea.
- 5.- Udalerrri eta lurralde historiko **ADIMENTSUAK** ⇔ Teknologiaren balioa aprobetxatu behar dugu. Teknologia udal eta aldundi irekien euskarri gisa, herritarren parte hartzea lurraldea denon artean hobetzeko elementu estrategikotzat duena. Teknologia informazioa eta zerbitzu publikoak jasotzeko bide moduan. Teknologia gure adinekoen bizitza kalitatearen zerbitzura. Teknologia kudeaketa publikoaren emankortasun handiago baten euskarri. Teknologia gure enpresa ehunaren lehiakortasuna hobetzeko oinarri. Baina, aldi berean, "bretxa digitala" desegin behar dugu, pertsona guztiek jaso ditzaten teknologiaren onurak.
- 6.- Udalerrri eta lurralde historiko **KOHESIONATU, INKLUSIBO ETA SOLIDARIOAK** ⇔ Pertsona bat ere ezin gera daiteke bazterrean. Lana gogor egin behar dugu pertsona guztiek bizimodu duina izan dezaten. Aldundietatik eta udaletatik jardunda, baina gutariko bakoitzaren elkartasunetik ere bai. Ez eskualderik, ez udalerririk, ezta gutxiago ere pertsonarik, lehen edo bigarren mailakorik.
- 7.- Udalerrri eta lurralde historiko **GAZTEAK** ⇔ Gizartea gero eta zaharragoa denez, gure gazteek urrats bat aurrera egin behar dute. Gure belaunaldirik prestatuena gidatu behar du Euskadik behar duen eraldaketa ekonomiko eta soziala. Gehiago parte hartuta eta euren ezagutza eta elkartasun eta justizia balioak gure gizartearen zerbitzurako ekarrita.
- 8.- Udalerrri eta lurralde historiko **IRISGARRI ETA LAGUNKOIAK** ⇔ Desgaitasunak dituzten pertsonen euren gaitasunak garatzen eta komunitateko dinamiketan bete-betean parte hartzen galarazten dieten oztopoak ezabatzen aurrera jarraitu behar dugu. Aldi berean, adinekoen bizi kalitatea hobetzeko jarduerak modu integralean bultzatu behar ditugu, aktiboki zahartzea eta gure udalerrietako gizarte eta instituzio bizitzan parte hartzea erraztuaz.

- 9.- Udalerrri eta lurralde historiko **OSASUNGARRIAK** ⇔ Gizarte eredu osasuntsu eta osasungarriago baterantz aurreratzeko ahaleginak biderkatu behar ditugu. Gorputz ariketa, elikadura osasungarria, aurrezaintza eta horrelako balioak sustatuaz eta gure elikagaien, uraren eta arnas-tan dugun airearen kalitatea kontrolatuaz. Gainera, osasunaren eta bizitza osasungarriaren sektorea ekonomia jarduera eta lana sortzeko esparru garrantzitsu bat da eta gero eta garrantzitsuagoa izango da.
- 10.- Udalerrri eta lurralde historiko **SEGURUAK** ⇔ Hiri eta herri seguruetan bizi gara eta egoera horri eutsi behar diogu. Horretarako polizia lokal gero eta hurbilagoak eta espezializazio handiagokoak lortu behar ditugu, arreta delituaren aurrezaintzan eta pertsekuzioan gehiago jarrita.
- 11.- Udalerrri eta lurralde historiko **IRAUNKORRAK** ⇔ Hondakinen 3 urratseko gurrpil zentzudunean (gutxitu, berrerabili eta birziklatu) aurrera egiten jarraitu behar dugu, ikuspegi bikoitza aurrean dugula: batetik "lurralde berde" batek ematen duen bizi kalitatea eta bestetik ekonomikoa, izan ere ingurumen arloetan araudi eta politika zorrotzak edukitzea berrikuntzarako eragile izaten baita, enpresen lehia ahalmena hobetuaz eta "ekonomia berdea" deritzana garatuaz.
- 12.- Udalerrri eta lurralde historiko **KULTURALAK** ⇔ Kultura jarduera gizarte baten bizi indar kolektiboaren neurria da. Eskaintza kultural zabala izateari eutsi behar diogu, izan ere gizartearen dinamika ildo bi hobetzen baititu: udalerrri eta lurralde historikoetan bizi diren pertsonen garapena eta bisitari berrien erakarpenean, ondorioz aberastasuna sorturik.
- 13.- Udalerrri eta lurralde historiko **ERAKARGARRI ETA ABEGITSUAK** ⇔ Gure hirigune eta landaguneen garbitasun eta edertasunak harrotu egin behar gaitu, eta, aldi berean, daukagun eta erakartzen jarraitu nahi dugun kalitatezko turismoa erakarri behar du. Era berean, bisitan datozkigun pertsona guztientzat abegi oneko lekua izaten jarraitu behar dugu. Pertsona hauek gure udalerriei eman egiten dietela jakinik, bertokotzen edo bisitatzen lagundu behar diegu, harrera bulegorik onena geu bihurtuta. Gizarte abegitsua gara, eta hori munduari erakusten jarraitu behar dugu.
- 14.- Udalerrri eta lurralde historiko **KONEKTATUAK** ⇔ Euskadiko gizon-emakumeek garraio eta logistika azpiegituren punta-puntako sare bat daukate erabilgai, eta lastertasun handiko trenan heltzen denean handitu egingo da. Konexio ahalmen hori, dagoen garraio publikoaren sistemaren inguruan egituratu da, bai eta mantendu eta indartu behar den errepide mapa oso baten inguruan ere.
- 15.- Udalerrri eta lurralde historiko **GARDENAK** ⇔ Gardentasuna eta onestasuna gizarte osoan sarrarazi beharreko balioak dira. Jakina, eta lehenik eta behin, gure herri erakundeetan, informazioa, zorrotza eta zabala izateaz gain, herritarrek ulertzeko modukoa izatea lortuta, gure zergen dirutik azken zentimoa ere nora doan jakin dezaten. Baina gizarte antolakundeetan, enpresetan... ere bai. Etika indibiduala etika kolektiboa eraikitzeko.
- 16.- Udalerrri eta lurralde historiko **PARTE HARTZEKOAK** ⇔ Gure udalerrri eta lurralde historikoen etorkizunak denoi eragiten digu. Iritzi, ideia eta proposamen guztiak behar ditugu. Gizarte erakundeenak, enpresaburu elkarteak. Baina gutariko bakoitzarenak ere bai. Euskadi denon artean egiten dugu, ez administrazioek bakarrik.
- 17.- Udalerrri eta lurralde historiko **EUSKALDUNAK** ⇔ Euskal gizarte gero eta elebidunagoa da eta gure administrazioei ere gero eta elebidunagoak izatea eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea dagokie. Euskara gure eguneroko agendan kokatu behar dugu, gure dendetan, gure enpresetan, gure komunitate jardueretan, gure aisiako jardueretan, udalen kudeaketan eta aldundiengan. Jarrera ireki eta errespetuzko batekin, baita euskaraz hitz egiten ez dutenekiko ere. Euskaraz bizi nahi duena, eragotzi egingo dion inolako oztoporik gabe euskaraz bizi ahal dadila lortu behar dugu. Euskara gero eta gehiago zubi hizkuntza bihurtu behar dugu gizarte eleaniztun honetan, eta gure gazteek aldaketaren eragileak izan behar dute lurralde kultura-aniztun eta eleaniztunetarantz.

- 18.- **TRADIZIOA ETA MODERNITATEA KONBINATZEN** duten udalerrri eta lurralde historikoak ⇔ Harro sentitzeko moduko historia, oroimen historikoa eta kultura ondarea ditugu, eta, babestu ez ezik, garapen palanka gisa erabili behar ditugu. Baina, aldi berean, etorkizunera irekita egon behar dugu. Munduan ingelesez egiten da berba, eta izatera iritsi nahi dugun udalerrri eta lurralde historiko lehiakorretan ingelesa eta beste hizkuntza batzuk gehiago erabili beharko ditugu, beste herrialde batzuetako herritarren mailan egoteko.
- 19.- **KANPORA IREKITA** dauden udalerrri eta lurralde historikoak ⇔ Nazioartean irudi bikaina dugu, baina ezin gara horretan geratu. Munduaren etorkizuna batez ere hiri eta eskualdeen etorkizuna da. Aldi berean lehian eta lankidetzan diharduten hiri eta eskualdeena. Globaltasunaren abaguneak aprobetxatzeko prest egon behar dugu. Ezin gara bertan gozo gelditu trikuarena egiten, mundu globalizatu honetan gure errakuntzarik handiena litzateke.
- 20.- **BERDINTASUNAREKIN KONRPOMISOA HARTUTAKO** udalerrri eta lurralde historikoak ⇔ Gizarte garatu batek nahitaez izan behar du gizarte orekatua. Udalerrri eta lurralde historiko orekatuagoak behar ditugu, eta genero arloan, heziketa eta prestakuntza jasotzeko aukeretan, enplegua izateko aukeretan... berdintasuna izango duen gizarte batean aurrera egiteko konpromisoa hartutakoak.

3. Gure konpromisoak

- 3.1. Enplegua sortzea, gure lehentasuna
- 3.2. Pertsonak erdigunean dituen gizarte garapena
- 3.3. Gardentasuna, parte hartzea eta konpromiso etikoa
- 3.4. Kudeaketa eraginkor eta efizientea

3.1. Enplegua sortzea, gure lehentasuna

ARDATZAK	ILDOAK
Berrikuntza gure sektore tradizioaletan eta sektore berrien garapena	<ul style="list-style-type: none"> • Industriaren aldeko apustua. Euskal industria 4.0 • Goraka ari diren sektoreak: etorkizuneko sektore berriak eraikitzen • Berrikuntza: hazteko berritu • Nazioarteratzea: gure enpresak, munduan • Turismoa: garapen aukera gure udalerrri eta eskualdeetarako • Hiri merkataritza: bizi indarra gure udalerrietarako • Lehen sektorea: iraunkortasuna eta balio erantsia gure lurraldeetarako
Inbestimenduen erakarpina	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaintza lehiakorra eta proaktibotasuna enplegua sortuko duten inbestimendu produktiboak erakartzeko
Ekintzailtza	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresak sortzeko laguntza: ekinbide guztiek balio dute • ETE eta autonomoentzako laguntza: gure ekoizpen-ehuna sendotzen
Enplegu inklusibo eta kalitatezkoa	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte enplegua: gure gazteei aukerak ematen • Denontzako enplegua: lana bilatzeko zailtasun handiena duten taldeei laguntzen • Etengabeko prestakuntza: enplegu bermerik onena

Enplegua enpresek sortzen dutela jakinik eta hortik abiatua, lana sortu, finkatu eta garatzeari laguntzeak jarduera ildo estrategikoetako bat izaten jarraitu behar du, pertsonak prestatu eta gaitzearekin batera, bestela, nahikoa kualifikazio izan gabe, gure enpresek sortzen dituzten lan aukerak bertan ezin aprobetxatzeko arriskua izango dugu eta.

Hala ere, ez du balio enpleguak edozein prezioetan. **Kalitateko enplegua** behar dugu. Eta lan aukerak batez ere talde ahulenetara heltzea. Eta gure gazteengana, euren bizitza proiektuak osorik garatze izan dezaten.

Era berean, lurralde bakoitzaren espezializazio sektoreak definitu behar ditugu. Lurralde esparru bakoitzaren lehiarako indargune eta abantailatan oinarritutako abagune sektoreak zehaztu behar ditugu, sistemako eragile guztien ikuspegi estrategiko adostutik abiatuta. Lurralde bakoitzean balio erantsi handikoak, hazkuntza indar handikoak eta enplegu-sortzaileak diren sektoreen garapena bultzatzera bideratuta egongo dira gure helburu eta ahaleginak.

Tokiko ekintzailtza eta gure enpresen hazteko eta enplegua sortzeko indarra aprobetxatu eta erraztuko dituen **garapen endogenoari** laguntzea guztiz bateragarria da beste lan ildo osagarri batekin: gure lurraldeetara **enpresak erakartzearekin**, horrela inbestimendu produktibo honek enplegua sor dezan. Horretarako, beharrezko baldintzak sortu behar ditugu, nahikoa pizgarri eta sarigarri eskainita, inbestimendu horiek erakartzeko lan proaktibo sakona egiten dugun bitartean.

Berrikuntza gure sektore tradizionaletan eta sektore berrien garapena

- **Industriaren aldeko apustua. Euskal industria 4.0.** ⇨ Gure ekonomiaren egitura industriak duen pisua, eta gure esportazioen indarra ere bai, faktore funtsezkoa izan da krisiari aurre hobeto egiten laguntzeko, eta XXI. mendera egokitutako industria izango da etorkizun oparo baterantz aurrera egiten lagunduko diguna. Industriaren pisua berreskuratu behar dugu, industriak kalitatezko lantokiak sortzen dituelako eta induzitutako lanpostuak ugaltzen dituelako. Industriaren etapa berri honetara egokitzen lagunduko diegu gure enpresei, aldi honetan euren prozesu guztiak elkarri lotuta daudelako eta IKTen euskarripean elkarrekin interakzioan dabiltzalako. Industria 4.0 deritzan iraultza industrial berri honen aukerei ekiteko, oso profesional kualifikatuak eduki behar ditugu. Horregatik, industriari lotutako prestakuntza eta birkualifikazio profesionala irmo lagundu beharreko elementuak dira.
- **Goraka ari diren sektoreak: etorkizuneko sektore berriak eraikitzen** ⇨ Gure lurraldeak Europako eta munduko mapa zientifiko-teknologikoan erreferentzia bihurtzeko gai diren abagune sektore berrien garapena bultzatuko dugu, euskal industriaren indar eragilea badira, lehiakortasuna eta garapena erraztuaz eta indartuaz. Enpresa proiektu aitzindariak identifikatu behar ditugu, eta horien gainean nazioarteko merkatuan berariazko hobiak okupatzeko aukera berriak garatu behar ditugu.
- **Berrikuntza** ⇨ Gure enpresei berrikuntzaren eta lehiakortasun hobekuntzaren bidean lagun egiten eta laguntza ematen jarraituko dugu, bereziki ETEei. Lehiakortasun eta produktibitate industrialari eusteko eta merkatu berriei sarrera emateko oinarrizko giltzarria gure berritzeko gaitasuna indartzea da, balioa sortzeko ahalmena. Era berean, sinetsita gaude ezagutza eta ezagutzak berrikuntzaren bitartez balioa sortzeko duen indarra pertsonengan dagoela eta, horregatik, berrikuntza eta sormena bezalako balioak sustatzen jarraitu behar dugu, eta profesionalen gaitasun berriak garatzeari ekingo diogu etorkizunak dakartzan erronkei aurre egiteko. Hizkuntza kudeaketa bultzatuko dugu ingurune elebidun eta eleaniztunean, enpresaren kalitatea hobetzeko irizpide gisa. Gizarte berrikuntzaren arloan aurre egiten diegun gizarte erronka berriei erantzutera bideratuta sortzen diren enpresaburu ekimenei laguntzea ere ezinbestekoa deritzagu.
- **Nazioarteratzea: gure enpresak, munduan** ⇨ Euskal ETEak mundu global bati egiten diote aurre. EAJ-PNVtik nazioarteratzea ez dugu hautazkotzat hartzen, beharizana dela deritzagu. Aukera berrien bila irten behar da eta gure enpresei lagun egin behar zaie. Aukera globalak aprobetxatzeko prest egon behar dugu. Jokaleku berri honetan lehiatzeko gaitasunak filosofia berri bat eskatzen du: elkarlanarena. Horregatik, enpresen elkarlan eta lankidetzak politikak bultzatuko ditugu eta erraztasunak eman, modu integral batean berritzeko eta nazioarteratzeko prozesuetan sartuko direla bermatuko duen neurri egokiena lor dezaten gure ETEek.
- **Turismoa: garapen aukera gure udalerriri eta eskualdeetarako** ⇨ Turismoaren sektorearen garapena bultzatuko dugu, iraunkortasunaren ikuspegia kontuan hartuta, udalerriri bakoitzaren ondare natural, historiko eta kulturalari balioa emateko eta gure bisitari izan litezkeenentzat eskaintza erakargarria osatzeko. Helburu horri ekiteko, eskualde bakoitzaren eskaintza eta egoeraz hausnarketa estrategikoa bultzatu eta lagunduko dugu; azpiegitura eta ekipamendu turistikoaren garapena eta hobekuntza; sektoreko enpresen profesionalizazioa eta lehiakortasuna; eta teknologia berriei lotutako aukerak gure jomugak promozionatzeko aprobetxatu.
- **Hiri merkataritza: bizi indarra gure udalerrietarako** ⇨ Hiri merkataritza edo merkataritza hurbila garrantzi handiko sektorea da, aberastasuna ematen duelako eta ekonomia eta enplegu lokalaren egonkortasun eta dinamismorako ezinbestekoa da. Horregatik, bere lehiakortasuna hobetu behar dugu eta kontsumo ohitura berrietara eboluzionatu eta egokitzen lagundu, berrikuntzaren bidez, IKTak erabiliaz, kudeaketa ahalmena handituaz eta elkarte egituraketa indartuaz. Era berean, estrategia bateratuak garatzea sustatu behar da, herritarrei eskaintza oso bat emateko eta turismoarekiko sinergiak aprobetxatzeko.

- **Lehn sektorea: iraunkortasuna eta balio erantsia gure lurraldeetarako** ⇨ Gure ahaleginak lehen sektoreari eta bere eraldaketa industriari laguntzera bideratuko ditugu, balio ekonomiko handiaz gain, behar-beharrezkoak baitira biztanleria landagunean finkatzeko eta arlo hauek garatzeko. Lehiakortasunean aurrera egin behar dugu, nekazaritzako elikagaien katean ekoizpen eta negozioazio ahalmena indartuz eta merkaturatzeko estrategia berrietarantz aldatuz.

Inbestimenduen erakarpena

- **Eskaintza lehiakorra eta proaktibotasuna enplegua sortuko duten inbestimendu produktiboak erakartzeko** ⇨ Gure helburua lurralde ireki eta abegitsua, nahikoa pizgarri eta sarigarri dituen lekua, izateko eskaintza bat osatzea eta horretarako behar diren baldintzak sortzea izango da, eta inbestimendu horiek eakartzeko lan proaktibo sakona egingo dugu. Funtsezkoa da enpresak eta enpresa proiektuak erakartzea, enplegua sortzeko ahalmena dutenak eta tokiko garapen ekonomikoari lagunduko diotenak. Gure udal eta eskualdeetan ekonomia dinamizatzeke ahalmena duten proiektuen garapena eta enpresen kokapena bultzatu eta lagunduko dugu.

Ekintzailtza

- **Enpresak sortzeko laguntza: ekinbide guztiek balio dute** ⇨ Tradizioz gure ezaugarria izan den indar ekintzailea berreskuratu behar dugu. Gure ahaleginak ekinbide berritzaile, bideragarri eta hazte-potentzialdunak dituzten pertsona ekintzaile guztiei laguntza bermatzera bideratuko ditugu. Helburu hori lortzeko, esparru publikotik laguntza zerbitzuak garatuko ditugu, baina laguntza zerbitzu eta finantzaketa berrien garapena ere sustatuko dugu lankidetzara publiko-pribatuaren bidez. Lurralde bakoitzeko sektore lehenetsietan abaguneen identifikazioari eta ekinbideak garatzeari lehenetsia emango diogu. Sormena, ahalegina, berrikuntza eta ekintzailtza bezalako balioak barneratu eta garatu behar ditugu gizarte eremu guztietan, baina hezkuntza sistemaren lehen etapetatik ere. Laguntza eman behar diogu ekinbideen garapenari ekintzailtza eremu guztietan (ekintzailtza, soziala, barne ekintzailtza, ekintzailtza teknologikoa, autoenplegua) eta bidea batera egin, enplegua sortzen eta gure enpresa-ehuna garatzen laguntzeko.
- **ETE eta autonomoentzako laguntza: gure ekoizpen-ehuna sendotzen** ⇨ Gure ETE eta autonomoen lehiakortasuna hobetzen lagundu behar dugu, euren garapena bermatzeko eta susperraldia sendotzeko, eta bidea elkarrekin egin. Likideziarik falta, krediturik eza eta berankortasuna dira oraindik gure ETE eta autonomoen arazo larriak. Lagundu eta bidea erraztu nahi diegu.

Enplegu inklusibo eta kalitatezkoa

- **Gazte enplegua: gure gazteei aukerak ematen** ⇨ Gazteentzako programa berezien garapena bultzatuko dugu, lan munduan txertatzea xede hartuta. Helburu hori lortzeko, enpresa munduarekin koordinatuta ariko gara, unibertsitateko eta Lanbide Heziketako titulua duten gazteei, euren lehen lan esperientzia izan dezaten, aukera berriak eskaintze aldera. Era berean, nazioartean lan esperientziak izateko aukerak emateari beharrezkoa deritzagu, gure enpresen nazioarteratze erronkan laguntzeko gai izango diren ikuspegi globaleko profesionalak presatzea helburu bat delako. Hori guztia, kualifikazio gutxieneko gazteei erantzun espezifikoak eman behar zaizkiela ahaztu gabe.

- **Denontzako enplegua: lana bilatzeko zailtasun handiena duten taldeei laguntzen** ⇔ Gizartean baztertuta dauden edo hala geratzeko zorian dauden pertsonen lan merkatuan txertatzeko erraztasunak ematea da gure lehentasuna, bai eta krisiak lan merkatutik baztertu dituen beste pertsona batzuei ere, euren egoera kronikoa eta atzeraezina izatea saiheste aldera. Ildo horretan, 45 urtetik gorako pertsonak lanean txertatzea errazteko eta euren lanbide jakituriari balioa emateko programa bereziak bultzatuko ditugu. Era berean, balioa eta laguntza eman nahi diogu ekonomia sozialeko enpresen eginkizun garrantzitsuari eta enplegu inklusiboaren sortzeko duten gaitasunari.
- **Etengabeko prestakuntza: enplegu bermerik onena** ⇔ Lana aurkitzeko aukerak nabarmen handitzen dira kualifikazioa handitzen den neurrian; horregatik, gaikuntza, bai hasierakoa bai etengabeko ikaskuntza, lana lortzeko bermerik onena da epe luzean, eta horregatik gure udalerrietan sustatu behar ditugun estrategia argietako bat izan behar du. Ildo horretan, ekintza espezifikoak jarriko ditugu martxan lanik gabeko pertsonak birkualifikatzea eta gero lanean txertatzea lortzeko. Era berean, gazteei izen handiko nazioarteko ikastetxeetan bikaintasunezko prestakuntza ematea bultzatuko dugu, eta sektore industrialerako langile tekniko oso espezializatuaren prestakuntza bideratuko dugu, arreta enpresen benetako beharretan jarrita.

3.2. Pertsonak erdigunean dituen gizarte garapena

ARDATZAK	ILDOAK
Gizarte politikak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte zerbitzuak: kalitateari eutsita iraunkoragoak egitea da erronka • Mendekotasuna: mendeko pertsoneri eta euren familiei laguntzak eta zerbitzuak bermatzen • Desgaitasuna: guztiz gizarteratzeko babesa eta laguntza • Haurrak eta familia: adingabeen eskubideak eta familiaren babesa bermatzen • Osasuna: bizi kalitate hobea baterako ohitura osasungarriak bultzatzen • Etxebizitza: alojer soziala eta zaharberritzea, etxebizitza duina izateko ardatz lehenetsiak • Inklusio soziala: elkartasuna eta zerbitzuak inor atzean ez uzteko
Euskara	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara: erabilera da erronka
Hezkuntza eta gazteria	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza: gai diren eta balioak dituzten pertsonak prestatzen • Lanbide garapena: emantzipaziorako eta garapen pertsonalerako giltzarria • Gazteen parte hartzea: gazteak, funtsezko jarduleak gizarte bizitzan
Adinekoak	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartze aktibo eta osasungarria erronka
Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Genero berdintasuna: aurrera berdintasun osorantz
Kultura eta kirola	<ul style="list-style-type: none"> • Azpiegitura kulturalak: erakusketa eta interakzio lekuen ezarpen eta kudeaketa efizientea • Kultura adierazpenak eta ekoizpena: prestakuntza eta sorkuntza kulturalari laguntzen • Ondare historiko eta kulturala: gure historia zaintzen eta balioztatzen • Kirola: pertsona guztiei kirola egiteko erraztasunak ematen
Elkarbizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Aniztasuna eta immigrazioa: ezberdina errespetatuaz bertakotzea • Herritarren segurtasuna: udalerrri eta auzo seguruak bermatzen • Balioen garapena: guztion onerako lan egiten ikasten
Ingurumen iraunkortasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Hondakinak: 3 urratseko (gutxitu, berrerabili eta birziklatu) gurpil zentzuduna ixten • Ura: oinarriko baliabide bat era iraunkorrean kudeatzen • Energia: energia berriztagarrien eta energia efizientiaren aldeko apustu sendoa • Ondare naturala: gure baliabide naturalak zaintzen eta balioztatzen

ARDATZAK	ILDOAK
Mugigaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio publikoa: loturak errazten • Errepideak: bide sare askia eta kalitatezkoa finkatzen • Lastertasun handiko trenak: Euskadi egituratzen eta Euskadi Europara hurbiltzen • Portuak eta aireportuak: garapen ekonomiko eta sozialerako azpiegitura estrategikoak • Mugigaitasun iraunkorra: gutxiago kutsatzen duten garraiobide berrien alde
Hiri garapena	<ul style="list-style-type: none"> • Hiriberritzea: zaharbertzearen erronka • Irisgarritasuna: denontzat pentsatutako hiri eta herriak • Hiri erakargarritasuna: udalerrri funtzional, garbi eta abegitsuak
Landa garapena	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitatezko azpiegitura eta zerbitzuak udalerrri txikietarako
Identitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Oroimen historikoa: errespetua eta etorkizuneko balioa
Elkartasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Garapenerako elkarlana: gure elkartasun konpromisoari eusten

Pertsonak lurraldearen bihotza dira. Gure lurralde eta udalerriek behar dituzten gizarte politikek giza eskubideen defentsa, pertsona guztien duintasuna, justizia sozialaren eta elkartasunaren sustapena eta pertsona guztiak, jatorria edo egoera gorabehera, euren bizitza proiektua osorik eta duintasunez bizi ahal izango duten gizarte inklusibo baten eraikuntza bilatu beharko dituzte. **Garapen sozial solidario bat bultzatu behar dugu, pertsona bat ere atzean geldituko ez den lurraldea eraikitzen dugula bermatuta.** Horretarako, bategatik edo besteagatik egoera ahulean daudenentzat bermagarri izango den prestazio eta zerbitzu sare bat behar da.

Gizarte politikak

- **Gizarte zerbitzuak: kalitateari utsita iraunkorrakoak egitea da erronka** ⇨ Gure helburua gizarte zerbitzuak jasotzen direla bermatzea da, eta horretarako ezinbestekoa da zerbitzuen eta esku hartze sozialen efizientzia eta eraginkortasunean aurrera egitea, horien kalitatea eta iraunkortasuna bermatzeko. Horretarako, gizarte politiken ebaluazio kulturarentz jo behar dugu, gardentasun eta arduraren publikotik, sistemako eragile guztiekiko koordinazio eta komunikazioan hobekuntza bat bultzatuaz; kudeaketa modu berrien bila, lurraldearen behar sozialen erantzuna eta efizientzia hobetzeko; teknologia berriei lotutako aukerak aprobetxatuaz; eta gizarte berrikuntzari lagunduaz. Onenengandik ikasi behar dugu zerbitzurik onenak izaten jarraitu ahal izateko.
- **Mendekotasuna: mendeko pertsonen eta familiei laguntzak eta zerbitzuak bermatzen** ⇨ Mendekotasun Legean jasotzen diren prestazioak bermatzen jarraitu behar da. Aldi berean, mendekotasun egoeran dauden pertsonarik ahulenen bakartze egoeren aurrezaintza bultzatu behar dugu. Horretarako, teknologia berriei lotutako aukerak sustatuko ditugu mendekotasun egoeran dauden pertsonen jardueraren mugak, bakartzea edo herritar gisa parte hartzearen murrizketak konpentsatzeko edo ezartzeko. Bestalde, zaintzen duten pertsonak zaindu behar ditugu. Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu administrazioaren aitorpena; pertsona zaintzaileak sentiberatzeko, aholkua emateko eta prestatzeko ekintzak bultzatzea; eta arnas programak indartzea.
- **Desgaitasuna: guztiz gizarteratzeko babesa eta laguntza** ⇨ Lehenasunez jotzen dugu desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta autonomia pertsonala sustatzea, oztopoak kenduta eta desgaitasuna duten pertsonen gizarte dinamiketan gainerako pertsonen baldintza beretan parte hartzea galarazten dieten murrizketak saihestuta. Era berean, teknologia berrien erabilera bultzatuko dugu bakartzea saihesteko edo herritar bezala parte hartzerakoan mugak saihesteko. Eta jakina, aurrera jarraitu behar dugu lanean sartzen, bai enplegu babestuaren bidez bai merkatuko enpleguaren bidez, enpresen erantzukizun soziala piztuaz pertsona hauek laneratzeko.
- **Haurrak eta familia: adingabeen eskubideak eta familiaren babesa bermatzen** ⇨ Gizarte eta hezkuntza zerbitzuen hurbilketa bultzatuko dugu babesik gabe dauden adingabeak detektatu, balioetsi eta artatzeko. Koordinatuta egingo dugu lan, absentismoaren eta deseskolatzearen tasak jaisteko, hezkuntza eskubidea bermatzeko, nerabe babesgabeen garapen osoa bultzatzeko eta adingabe babesgabeen tutoretza eta laguntasuna errazteko, bizitza proiektu oso eta arrakastatsu bat eraikitzea lor dezaten. Aldi berean, familien orientazio eta bitartekotza zerbitzuak zabaltzeari garrantzi handia ematen diogu, gatazka arazoak dituzten familietan egoera zailak ahal den guztian saihesteko.
- **Osasuna: bizi kalitate hobea baterako ohitura osasungarriak bultzatzen** ⇨ Osasuna suspertzearen kultura bultzatuko dugu, gaixotasunari aurrea hartzen eta saihesten duten faktoreetan arreta jarrita, dela ingurumena, lan baldintzak, elikaduraren segurtasuna eta bizitza ohitura osasungarriak bultzatzea. Osasunaren ikuspegia politika guztietan erabiliko dugu, gizarte garapenean osasuna zehar-lerro bat dela kontsideratuta.
- **Etxebizitza: aloger soziala eta zaharberritzea, etxebizitza duina izateko ardatz lehenetsiak** ⇨ Gizarte alogeroko programak bultzatuko ditugu, bai sustapen publikoko etxebizitzak bai hutsik dauden etxebizitza pribatuak mugiaraziaz. Udal eremuan etxebizitza zaharberritzeko berariazko plan berriak bultzatuko ditugu, irisgarritasuna eta energia efizientzia bezalako alderdiak hobetze aldera, gainera gizarteratzeko ekonomia garatzeko ekintzak gauzatuaz zaharberritzeko eta biziberritzeko eskuhartze integralak behar dituzten auzoetan.

- **Inklusio soziala: elkartasuna eta zerbitzuak inor atzean ez uzteko** ⇨ Balioa eman behar diegu eta ikusgai egin behar ditugu eskura dauden zerbitzu eta laguntzak, eta beharren dituzten pertsonen esku jarri. Ildo horretan, oinarritzko gizarte zerbitzuen arreta kalitatea indartuko dugu, gizarte-babes sisteman sartzeko atea direnez, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELe onartutako Zerbitzu Kartera berriari definitutako udal gizarte-zerbitzuetako arreta eredu berriari jarraituaz. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko solaskidetzeta eta koordinazio hobea bultzatuko dugu, eskuhartzeak efizienteagoak izan daitezen eta diru laguntzak pertsonen inklusioa laguntzen eta errazten duten zerbitzuekin osatzeko.

Euskara

- **Euskara: erabilera da erronka** ⇨ Euskara ondare eta komunikazio tresna da. Horregatik uste dugu euskararen sustapenarekin eta hizkuntza elkarbizitzarekin dugun konpromisoari eutsi egin behar diogula, gizarte kohesioaren eta kultura eraikuntzaren elementuak direlako. Komunitate gisa irauteko euskara gizartearen bete-betean erabiltzeko hizkuntza bilakatu behar da. Euskara sustatu eta zaintzea lehenetsutako konpromiso bat da aldundi eta udaletarako. Euskararen Normalizaziorako Oinarritzko Legeak dioenez, euskal botere publiko guztiek hartu beharko dituzte neurri egokiak eta baliabide nahikoak euskararen erabilera gizarte bizitzaren eremu guztietan erabiltzea bultzatzeko. EAJ-PN-Ven hautetsi eta kudeatzaileek konpromiso osoa hartzen dute euren jarduera publikoan euskararen erabilerarekin. Gure konpromisoa argia da: euskararen erabilera bermatzeaz gain, bai udal bizitzan bai gure udalerrietako gizarte bizitzan indartuta eta apurka-apurka areagotuta ikusi nahi dugu.

Hezkuntza eta gazteria

- **Hezkuntza: gai diren eta balioak dituzten pertsonak prestatzen** ⇨ Ikastetxeekin, unibertsitateekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batean, lurralde bakoitzaren sektore lehenetsiekin zerikusia duen bikaintasuneko prestakuntza bultzatuko dugu, eta sektore horiei zuzenean aplikatzea ere bai. Balio berriak sartu behar ditugu hezkuntzan, eta hezkuntza integrala oinarritzen duten zehar-lerroak eta komunitate hezkuntza indartu behar dugu, gero eta gizarte, zuzen, solidario eta kohesionatuago bat lortzeko. Berrikuntza eta sormena eta ekintzailetasuna bultzatu behar ditugu, eta gaitasun berriak garatu behar ditugu, elkarbizitza antolatzeko eta etorkizunak dakarkigunari aurre egiteko gai den gizarte euskaldun eleaniztun batean herrialde lehiakorra lortze aldera. Aldi berean, familiekiko elkarrizketa bideak eskaintzen ditugu, hezkuntza arloko gabeziak eta beharrak detektatzeko, bai udal mailan konpontzeko, bai eskumena duen administrazioari pasatzeko.
- **Lanbide garapena: emantzipaziorako eta garapen pertsonalerako giltzarria** ⇨ Gazteen garapen profesionalari laguntzea ea bidea elkarrekin egitea da talde honen emantzipazioa eta garapen pertsonala bideratzeko estrategiarik onena. Horretarako, "emantzipazioaren hirukia" deritzen horretan –prestakuntza, lana eta etxebizitza- eragitera bideratutako politika berriak suspertuko ditugu, hiru behar horiei erantzungo dieten ekintza integralak jasoko dituztenak. Gazteak lanerako kontratatzeko laguntza programak indartuaz; gazteak enpresa mundura hurbiltzea bultzatuaz, euren hezkuntza ibilbidea hautatzerakoan orientatzeko; talentuaren, bikaintasuneko prestakuntzaren eta gazte ekintzailtzaren bultzadari lagunduaz; eta aloger sozialeko eta etxebizitzaren erabilera partekatuzko programak bideratuaz.

- **Gazteen parte hartzea: gazteak, funtsezko jarduleak gizarte bizitzan** ⇔ Irizpide propioa duen gazteria eduki behar dugu, autonomia, ekimena duena, gazteria parte-hartzailea, solidarioa eta udalerrien garapen sozial eta ekonomikoarekin konpromisoa hartuta dutena. Gazteekin eraiki behar dugu etorkizuna. Gure helburua gazteen parte hartzea bultzatzea da, talde honentzako jardueren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan ez ezik, gazteei eragiten dieten gainerako udal eta foru politiketan ere bai. Horretarako, gizartean gazteagotatik parte hartzearekin hartuko dugu konpromisoa, heziketa formalaren eta ez formalaren guneekin lankidetzatza proiektuak bultzatuaz, eta berariazko parte-hartze prozesuak garatuko ditugu gehien eragiten dieten arloei buruz: lana, etxebizitza...

Adinekoak

- **Zahartze aktibo eta osasungarria erronka** ⇔ Gure konpromisoa "zahartze aktiboa" bultzatzea da, adinekoek ere euren potentzial guztia gara dezaten. Udalerrien egunerokotasunean adinekoek duten zeregina erreibindikatu nahi dugu. Zeharkako politiketan lan egin behar dugu, talde honek gure gizartean zeregin aktiboagoa izan dezan. Adinekoek parte hartzen duten udalerririk behar ditugu, udalerriren garapenaren parte aktiboa osatzen dutenak. Horretarako, zahartze eta mendekotasun egoerak laguntzeko konponbide zerranda bat prestatuko dugu, pertsonaren duintasunari eta zahartze aktibo eta osasungarriari lehentasuna emanda.

Berdintasuna

- **Genero berdintasuna: aurrera berdintasun osorantz** ⇔ Euskadi aitzindaria izan da berdintasun politikak bultzatzen. Ildo horretan, lortutako emaitzak finkatzeko eta gure gizarte garapenerako estrategikoa den arlo honetan aurrerapen berri bat bultzatzeko konpromisoari eusten diogu. Genero ezberdintasuna gizartearen erronka nagusietako bat da, eta indarkeria matxista bere adierazpen goren eta basatiena baino ez da. Gure ahaleginak pertsona guztien arteko berdintasuna bermatzera bideratuko dira, funtsezko eskubidea delako sexua gorabehera. EAJ-PNVen konpromisoa gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzea da, elkarbizitza proiektu sendo bat eraikitzeko osagai nagusietako bat delako. Gure apustua aukera berdintasunaren aldekoa da, eta emakumeen ahalduzko oreka sozialaren eta garapen ekonomikoaren eragile bilakatzen da. Ildo horretan, familia eta lan bizitza bateragarri izatea hobetu nahi dugu, ordutegi zentzuzkoagoak bultzatuta. Bestalde, sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik bereizkeria egitearen aurkako borrokan dugun konpromisoa berresten dugu, aniztasun afektibo-sexuala errespetatu eta onartzea bultzaturik, garrantzitsua delako eta euskal gizarte tolerantetago bat eraikitzearekin zerikusi zuzena duelako.

Kultura eta kirola

- **Azpiegitura kulturalak: erakusketa eta interakzio lekuen ezarpen eta kudeaketa efizientea** ⇔ Azpiegitura eta ekipamendu kulturalak behar-beharrezkoak dira kultura bizitzeko. Balioa eman behar diegu eta errendimendurik onena ateratu dauden kultura azpiegiturari, gure garapen kulturalaren elementuak direlako. Oinarritzotzat jotzen dugu kultura azpiegitura estrategiko berriak bultzatu, eguneratu eta finkatzea, instituzioen arteko lankidetzatza abiapuntutzat hartuta, lurraldearen garapen kultural eta sozioekonomikoari laguntzeko. Azpiegitura horiek udala gainditu beharko dute euren irismenean, eskualde osoari zerbitzua emateko, eta gainera turistak erakartzeko elementu balioetsuak dira.

- **Kultura adierazpenak eta ekoizpena: prestakuntza eta sorkuntza kulturalari laguntzen** ⇔ Kultura garapena bultzatzea lurraldeko eragile guztien kultura prestakuntza eta ekoizpenari laguntza eta bultzada ematea da. Hori guztia bidea errazten diharduen administrazio batetik, efizientziarik handienarekin eta sektoreari laguntzeko politikari dagokienez gardentasunez. Gure helburua herritar guztiak kultura sortu, zabaltu eta jaso ahal izatea da, kultura proiektuak sortu eta mantentzeko laguntza berezia emanaz. Esparru horretan, euskal kultura eta euskal kultura ekoizpena gure kultura identitatearen parte dira. Kulturaren garapena gure sustraiei lotuta laguntzea gizarte kohesiorako, identitate-rako eta ekonomiaren garapenerako egokia dela sinesten dugu. Bestalde, kultura eta sorkuntza industrien sektoreak garapen ekonomikorako aukera handiak sortzen ditu. Garrantzitsutzat jotzen dugu eta dinamizatu egingo dugu kulturaren eta ekonomia jardueraren arteko harreman hori, dimentsio hori aprobetxatzeko, kultura gure lurraldeetarako ekonomiaren eta enpleguaren eragilea baita, eta are eragile handiagoa izan baitaiteke.
- **Ondare historiko eta kulturala: gure historia zaintzen eta balioztatzen** ⇔ Arlo honetako jarduerak historia eta kultura ondarearen aktiboak katalogatzera, berreskuratzea eta balioztatzea bideratuta egongo dira, aktibo horiek eskualde bakoitzean jasoko dituzten ibilbide kultural eta turistikoak sortuz; gure tradizioak ezagutarazi eta sustatuaz; eta lurralde bakoitzaren oroimen historikoa ikertu eta zabaltuz, esperientzia turistikoaren garapen aukera gisa. Aldi berean, teknologia berriek historia eta kultura ondarea ekoizteko, digitalizatzeko eta zabaltzeko egiteko ematen dituzten aukeren aprobetxamendua bultzatuko.
- **Kirola: pertsona guztiei kirola egiteko erraztasunak ematen** ⇔ Kirola fenomeno sozial, kultural, hezkuntzako eta ekonomiko bat da, eta neurri handi batean bizi kalitatea eta osasuna hobetzen dituena. Horregatik bultzatuko dugu kirol azpiegituren garapen orekatua, dauden instalazioak egokitu eta hobetuaz eta inbestimendu berriak abiaraziaz efizientzia eta iraunkortasun ekonomikoaren logika eta dimentsionamendu zuzena kontuan hartua. Instalazioen eskualdekotasuna suspertuko dugu, koordinazio publiko-pribatua sustatuaz eta kirol erakundeen kudeaketan bikaintasuna bultzatuaz. Aldi berean, elkar ezagutzeko, gizarteratzeko eta balioak transmititzeko bide bata denez, kirolgintza bultzatzea garrantzitsua dela deritzagu, bai eta kirola, ohitura osasungarriak eta bizitzakoaldi bakoitzera egokitutako elikadura onaren ohiturak zabaltzeko kanpainak egitea ere.

Elkarbizitza

- **Aniztasuna eta immigrazioa: ezberdina errespetatuaz bertakotzea** ⇔ Bultzatuko ditugun gizarte politike giza eskubide guztien defentsa bilatuko dute, pertsona guztien duintasuna, justizia soziala sustatzea, elkartasuna, eta pertsona guztiek, jatorria edo egoera gorabehera, bizitza normal, bete eta duina bizi ahal izango duten gizarte inklusibo baten eraikuntza. Ildo horretan, kultura aniztasuna eta etorkinen gizarteratzea erraztuko duten neurriak bultzatuko ditugu, eta talde horri buruzko estereotipo faltsuak eraisten lagunduko dutenak. Euskadiko udalerrri eta lurralde historikoetan ez dago inor soberan. Denok dugu lekua.

- **Herritarren segurtasuna: udalerrri eta auzo seguruak bermatzen** ⇔ Segurtasun politikak jarduera publikoaren helburu garrantzitsuena dira, ez baitute soilik ordena eta gizartearen lasaitasuna bermatzen, baizik eta komunitate zerbitzuak emateko aukera larrialdietan herritarrentzako laguntza ere eskaintzen baitute, sektore asko ukituta, beraz. Gure ahaleginak komunitateari begirako polizia lokalaren eredu bat indartzera bideratuko dira, "hurbiltasuneko polizia" kontzeptuan sakonduaz. Bere lanaren aurrezaintza izaeran aurrera egingo duen polizia lokal bat nahi dugu, bere inguruneko taldeekin aliantzak eta konplizitateak sortuko dituen, kudeaketa efizientea eta bikaintasunerantz bideratua darabilena, poliziakoen gaikuntzaz eta etengabeko hobekuntzaz, eta etorkizuneko erronkak aldaketara eta teknologia berrietara egokitzea erraztuko duten estrategiak garatuaz hartuko dituen.
- **Balioen garapena: guztion onerako lan egiten ikasten** ⇔ Euskal gizarteak bere balio propioak ditu, eta zaindu eta indartu behar ditu. Horregatik, ahalegina, gaitasun ekintzailea, aldaketa eta desfioekiko jarrera proaktiboa, nazioartera irekitzea, lankidetzaz eta elkarlana, gure identitatea zaindu eta balioztatzea eta elkartasuna izango dira bultzatu eta zabalduko ditugun balioak. Aldi berean, boluntarioritza esperientziak sustatuko ditugu, elkarteratzea eta gazteen parte hartzeko modu berriak indartuz.

Ingurumen iraunkortasuna

- **Hondakinak: 3 urratseko (gutxitu, berrerabili eta birziklatu) gorpil zentzuduna ixten** ⇔ Gure udalerrri eta lurraldeen garapen iraunkorrean funtsezko alderdietako bat, sortzen ditugun hondakinak kudeatzeko modua da. Hondakinak kudeaketa efizienteak, alde batetik, herritar eta enpresa guztien lankidetzaz eskatzen du, eta, bestetik, Administrazioak konpromisoa prozesua errazteko eta prozesua ondo dabilela kontrolatzeko. Gure ahaleginak 3 oinarrizko urrats hauek bultzatzera bideratuko ditugu, hondakin gutxiago sortzeko eta horrekin ingurumena babestu eta zaintzen laguntzeko. Horretarako, sentiberatzeko eta motibatuzeko kanpainak egitea bultzatuko dugu, gizarte informatua eta iraunkortasun gaietan konplizea dena lortzeko, eta hiri eta industria hondakinak bereizteko, modu hautatuan biltzeko eta tratatzeko sistemak hobetuko ditugu.
- **Ura: oinarrizko baliabide bat era iraunkorrean kudeatzen** ⇔ Biztanleria hiriguneetan kontzentratzeak eta klima aldaketaren efektuek erakusten diguten geroan, ez oso urrun, ura planeta guztiko ondasunik estimatuena izango omen da, bai etxeko kontsumorako bai nekazaritarako, industriarako eta zerbitzuetarako. Etorkizun horren aurrean, ezinbestekoa da gure lurraldean uraren kudeaketa iraunkorraren eredu zabaltea biztanle guztien eskura dagoela bermatzeko, ongizatearen eta ekonomia garapenaren mesedegilea denez. Horretarako, iraunkortasuna kontuan hartzen duen kontsumoa bultzatuko dugu. Herritarrak kontzientziazteko ezinbestekoa da. Aldi berean, uraren zikloaren kudeaketan efizientzia bultzatuko dugu, bai eta iturri publikoetan, ureztatzean, igerilekuetan eta beste baliabide publikoetan uraren kontsumoa kontrolatzeko sistema aurreratutakoak sustatuko ditugu.
- **Energia: energia berriztagarrien eta energia efizientiaren aldeko apustu sendoa** ⇔ Uste dugu egungo abagunean gure ahaleginek iraunkortasunari dagokionez energiari eragiten dion horretan jarri behar dutela arreta. Energia efizientiaren estrategia eraginkorrak diseinatu eta garatu behar ditugu eta bide berriztagarrietatik energia sortzeko apustua egin behar dugu, gure udalerrietan aldi berean aberastasuna eta ekonomia garapena lortzeko. Udalek eta foru erakundeek benetako eragile aktiboak izan behar dute datozen urteotan aurrez aurre izango dugun paradigma aldaketan. Energiaren aldetik iraunkorrak diren instalazio eta ekipamendu publikoak eta etxebizitzaz eredu berri bat behar dugula esan beharra dago. Bai gizabanakoek bai antolakundeek energia kontsumo arduratsua egin behar dute, azkenean kostuak gutxitzeko eta lurraldearen ekonomia eta ingurumen iraunkortasunari eusteko. Herritarrei eta enpresaburuei energia aurrezteko kontzientzia kolektiboa sortzea hil edo bizikoa da energia eredu iraunkor berri bat garatzeko.

- **Ondare naturala: gure baliabide naturalak zaintzen eta balioztatzen** ⇔ Gure gizarteak izadiarekiko oreka bilatzen egin behar du aurrera beti, eta lan hori euskal aldundi eta udaletatik egiten izan da, gure herritarrekin herrialde moderno bat eraikiaz, ongizate maila handia duen Herria, baina aldi berean ondare natural aberats eta ugaria eta gizarte egitura orekatua dituen. Ildo honetan, gure aktibo naturalak balioztatze eta zaintzeko jarduerak egiten jarraituko dugu gure lurraldeen erakargarritasuna bultzatze aldera. Beti iraunkortasuna ikuspegi hartuta. Ez dago merezi duen etorkizuneko garapenik gure ingurumen balioak babesteko gai ez bagara.

Mugigaitasuna

- **Garraio publikoa: loturak errazten** ⇔ Garraio publikoaren zerbitzuak ekonomia hazkunderako, lehiakortasuna hobetzeko eta enplegurako beharrezkoak dira. Gure ahaleginak eskualde eta udalerrri guztien artean kohesio eta garapen orekatua bermatzen duten kalitatezko garraio zerbitzuen garapena finkatzera bideratuko ditugu. Aldi berean, garraio sistemak (autobusa, metroa, tren, tranbia) integratzeko jarduerak bultzatuko ditugu, herritarrei kalitatezko erantzun bat emateko, mugigaitasun iraunkorra eta energiaren aldetik efizientea indartzeko; eta garraio publikoaren sistema gure lurraldeetan turismoa areagotzeko tresna gisa balioztatzeko.
- **Errepideak: bide sare askia eta kalitatezkoa finkatzen** ⇔ Foru administrazioek Euskadiren garraio azpiegituren multzoa hobetu eta modernizatzeko egin duten ahalegina oso garrantzitsua izan da eta euskal herritarren bizi kalitatea hobetzeko, lurraldea egituratzeko, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta garapen iraunkorrako baterako balio izan du. Ildo horretan, lurraldeen oreka eta mugigaitasun iraunkorra bultzatzen jarraituko dugu ikuspegi estrategiko batetik. Oraingo aurrekontu mugatuen egoera honetan, benetan beharrezkoak zein azpiegitura diren zehaztu behar da, lehentasunak, iraunkortasuna eta eraginkortasuna irizpide hartuta.
- **Lastertasun handiko tren: Euskadi egituratzen eta Euskadi Europara hurbiltzen** ⇔ Lastertasun handiko tren Euskadira heltzea Europako enpresekin eta talentuarekin bat egitea da, eta aukera paregabea lurraldearen garapena bultzada orokor bat emateko. Barne joan-etorrien denborak laburtzeak eta Madrilekin eta Parisekin dugun konexio ahalmena hobetzeak enpresen dinamismoa eta lurraldearen ekonomia garapena bultzatuko ditu. Ildo honetan, lastertasun handiko tren gure lurraldeetara tarteko diren instituzioen artean adostutako epeetan heltzen denerako azpiegituren garapena sustatzea izango da gure konpromisoa.
- **Portuak eta aireportuak: garapen ekonomiko eta sozialerako azpiegitura estrategikoak** ⇔ Konexio ahalmen handia dugu kanpoarekin eta barruarekin. Gure aireportuetan bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko ditugun azpiegitura bikainek zuzeneko 30 konexio baino gehiago eta urtean 4 milioi pasaiari baino gehiago bideratzen dituzte. Gure lana pertsonen eta enpresek erabil ditzaten ekitea eta Europako negoziogune nagusiekiko aire konexio zuzenak bultzatzen jarraitzea izango da, ziur baikaude gure etorkizunerako giltzarri direla. Aldi berean, gure portuek garpen ekonomikorako duten bultzatza-indarra eta zeregin estrategikoa sustatzen jarraituko dugu, horien erabilera sendotuz eta horietara heltzea bideratuz.

Hiri garapena

- **Hiriberritzea: zaharberritzearen erronka** ⇨ Hirigintzaren ikuspegitik, erronka handia zaharberritzea da. Gure etxebizitzarik gehienek 50 urte baino gehiago dituzte, eta horrek segurtasuna eta erosotasuna bermatzera behartzen gaitu, bai eta irisgarritasuna eta energia efizientzia hobetzera ere. Gure ahaleginak etxebizitzak egokitzea eta zaharberritzea erraztera eta etxegintza iraunkorrari laguntzera bideratuko dira.
- **Irisgarritasuna: denontzat pentsatutako hiri eta herriak** ⇨ Desgaitasunari buruzko paradigma berriak ez du arreta pertsonaren osasun egoerara soilik mugatzen, aitzitik, desgaitasun horrek ingurugiroko elementuekin, hau da, ingurune ko oztupoekin eta gizartean parte hartzeko murrizketekin duen interakzioaren emaitza gisa ulertzea eskatzen du. Irisgarritasun on batek desgaitasuna duten pertsonak nozitzen dituzten mendekotasun egoerak gutxitu edo baita ekidin ditzakeela uste dugu. Horregatik gure lana udalerrri bakoitzaren irisgarritasuna hobetzera eta desgaitasuna duten pertsonen eta/edo mugigaitasun mugatua duten euren gizarte bizitza bete-betean bizitzea galarazten dieten murrizketa horiek gutxitu eta saihestera bideratuko dugu.
- **Hiri erakargarritasuna: udalerrri funtzional, garbi eta abegitsuak** ⇨ Gure hiri espazioen garbitasunak eta funtzionaltasunak tokiko herritarrentzat harro egotekoa izan behar du, eta daukagun eta erakartzen jarraitu nahi dugun kalitatezko turismorako erakargarria. Horregatik, gure udalerrriak funtzionalagoak eta erakargarriagoak egiten aurreratu behar dugu, udalerrrien balio guztiei balioa emanda. Gainera leku abegitsuak izaten jarraitu behar dugu gure herri eta hirietan bizi diren pertsona guztientzat eta bisitan etortzen zaizkiguentzat.

Landa garapena

- **Kalitatezko azpiegitura eta zerbitzuak udalerrri txikietarako** ⇨ Lurralde kohesionatua behar dugu, lehen eta bigarren mailako udalerrri edo eskualde barik. Gure helburua udalerrri guztirako eta pertsona guztientzako oinarritzko zerbitzu komunak bermatzea da. Gure ahaleginak udalerrri txikiek kalitatezko zerbitzuak jasotzen dituztela bermatzera bideratuko ditugu, horien integrazioa bultzatuaz eta konexio ahalmena hobetuaz, garapen orekatu bat bultzatzeko behar diren azpiegiturak hobetu eta garatuaz.

Identitatea

- **Oroimen historikoa: errespetua eta etorkizuneko balioa** ⇨ Oroimena lantzeak helburu nagusia lortzeko bide bat izan behar du: bakea eta elkarbizitza bere onera ekartzea gure Herrian. Ez oroimen hutsuneduna, ez oroimen mendekatzailea, ez dira bake justua eta elkarbizitza garbia ehuntzeko zume egokiak. Adostutako benetako oroimenak giza eskubide guztien urratze guztien egia guztiak jaso beharko ditu. Iragana (tradizioak, gizarte antolakuntza, historia) babestu eta oinarritzat hartuko dugu oraina (beste kultura batzuekiko harreman moduak, gizartearen aniztasuna, autogobernu mailak, gizartearen ohiturak, balioak eta abar) eraikitzeko eta etorkizun aldakor baina aukeraz ere betetako bati aurre egiten lagunduko diguten tresnez hornitutako gizarte batean geroa proiektatzeko.

Elkartasuna

- **Genero berdintasuna: aurrera berdintasun osorantz** ⇔ Euskadi aitzindaria izan da berdintasun politikak bultzatzen. Ildo horretan, lortu-tako emaitzak finkatzeko eta gure gizarte garapenerako estrategikoa den arlo honetan aurrerapen berri bat bultzatzeko konpromisoari eusten diogu. Genero ezberdintasuna gizartearen erronka nagusietako bat da, eta indarkeria matxista bere adierazpen goren eta basatiena baino ez da. Gure ahaleginak pertsona guztien arteko berdintasuna bermatzera bideratuko dira, funtsezko eskubidea delako sexua gorabehera. EAJ-PNVen konpromisoa gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzea da, elkarbizitza proiektu sendo bat eraikitze osagai nagusietako bat delako. Gure apustua aukera berdintasunaren aldekoa da, eta emakumeen ahalduntzea oreka sozialaren eta garapen ekonomikoaren eragile bilakatzen da. Ildo horretan, familia eta lan bizitza bateragarri izatea hobetu nahi dugu, ordutegi zentzuzkoagoak bultzatuta. Bestalde, sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik bereizkeria egitearen aurkako borrokan dugun konpromisoa berresten dugu, aniztasun afektibo-sexuala errespetatu eta onartzea bultzaturik, garrantzitsua delako eta euskal gizarte tolerantetago bat eraikitzearekin zerikusi zuzena duelako.

3.3. Gardentasuna, parte hartzea eta konpromiso etikoa

ARDATZAK	ILDOAK
Konpromiso etikoa	• Etika EAJ-PNVen ekintza politiko eta instituzionalaren printzipio nagusia
Gardentasuna	• Gardentasuna: kristalezko hormak dituzten instituzioak eta kontu ematea bermatzen
Parte hartzea	• Parte hartzea: denon artean gure udalerrri eta lurraldeak hazarazten

Herritarrek gero eta gardentasun eta parte hartze handiagoa eskatzen du, eta horrek zerbitzu publikoaren bokaziorik handiena duen lidergo politikoa eskatzen du, etika ekintza politikoaren printzipio nagusi gisa etengabe izango duena eta zintzotasunarekin eta kudeaketaren gardentasunarekin konpromiso etengabea izango duena.

Aldi berean, instituzio irekiak eta herritarrengandik hurbilak bultzatu behar ditugu, herritarren parte hartzea elementu estrategiko bat izango dutena, denon artean etorkizun hobea eraikitzen lagunduko digun elementu estrategikoa.

Konpromiso etikoa

- **Etika EAJ-PNVen ekintza politiko eta instituzionalaren printzipio nagusia** ⇔ Osotasuna, altruismoa eta onestasuna euskal gizartean sus-traitu beharreko balioak dira. Jakina, lehenik eta behin, herri erakundeetatik. Beraz, Politika Lokalaren balioa berriro ezartzeko eta herritarren konfiantza berreskuratzeko ahaleginak biderkatu egingo ditugu. Euskadin Politika Lokalak herritarrekiko konpromiso eraginkorra indartzea eskatzen du, balio publikoen areagotzea eta agerrarazte eraginkorra, joko arauena eta tokiko arduradun publikoak diren kargudun horien jarrera moralarena. Gizabanakoen etika etika kolektiboa eraikitzeko. Ildo horretan, eredu-jokabide eredu-emailea izateko konpromisoa hartzen dugu gure alkate eta zinegotziei dagokienez. Gure konpromisoa aldundiko, batzar nagusietako eta udaletako EAJ-PNVen kargudun guztiek «osotasun, eredu-garritasun, inpartzialtasun, gardentasun, onestasun eta errespetu» printzipioak beteko dituztela da, EUDELeK bultzatutako Euskal Politika Lokalaren Jokabide, Gobernu On eta Kalitate Instituzionalarekiko Konpromiso Kodearen arabera. Aldi berean, “errukigabeak” izango gara ustelkeriaren “marra zeharkatzen” duenarekin.

Gardentasuna

- **Gardentasuna: “kristalezko hormak dituzten instituzioak” eta kontu ematea bermatzen** ⇨ Herritarrek informazio publikoa askatasunez eta erraz jaso ahal izatea eskatzen du gure lurraldearen eraikuntza demokratikoak. Sinetsita gaude herritarrek euren Administrazioan konfiantza izatea aurrerabiderako eta gizarte kohesiorako funtsezko elementua dela. Ildo horretan, gardentasunari eta gobernu onari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko egingo dugu lan, gardentasunaren eta kontu ematearen arloan aldundiei eta udalei aplikatu dakizkiekeen eskaera mailak goratu ahal izateko arau esparrua garatuz. Eskura dagoen informazioa, zehatza eta zabala izateaz gain, herritarrek ulertzeko modukoa izatea da gure helburua, horrela bere zergen azken zentimoraino nora doan jakin dezan. Horretarako, herri erakundeak legeen eta herritarren eskaera berrietara egokitzeko lanean sakondu egingo dugu, gardentasunaren eta kontu ematearen kultura berri bat garatzeko asmoz eta sareko laa eta sinergiak aprobetxatuz aurrera egin ahal izatea ahalbidetuko dieten aplikazioak hobetzeko asmoz. Aldi berean, gardentasun maila hori beste ekonomia- eta gizarte-eragile batzuei ere aplikatzea sustatuko dugu, gizartearekin duten konpromisoa betetzekoan gardentasuna eta kontu ematea guztiz ezinbesteko balioak direla aintzat hartzen duten eragileei hain zuzen.

Parte hartzea

- **Parte hartzea: denon artean gure udalari eta lurraldeak hazarazten** ⇨ Herritarren parte hartzea demokraziaren ideien beraren erdigunean dago. Konpromiso kolektiboaren eragilea da. Antzinetatik gizartearen parte hartzea sustraituta duen Herri bat gara. Horregatik dakigu, jakin, balio demokratikoei atxikitako eta bizitza politikoan konpromisoa hartutako herritarrek izatea sistema demokratiko osoaren indar bizia dela. Konpromisoa hartzen dugu parte hartzeko demokrazian sakonduko dugula eta politika bere oneratzeko prozesu baten aitzindari izango garela, elkarriketa printzipioa biziberrituz. Herritarrekiko elkarriketa, arazoei ekiteko, entzuteko eta konponbideak adosteko. Sinetsita gaude elkarriketak eta gardentasunak proiektuen zilegitasuna areagotzen dutela eta prozesu demokratikoak aberasten dituztela. Politika publikoen kudeaketak autokritika eta apaltasun ariketa bat eskatzen du. Horretarako, autokritikara irekita egongo gara eta herritarren ahotsa entzungo dugu zer eskatzen digun eta nola lortu behar dugun jakiteko. Estrategia eta tresna berriak esploratuko ditugu parte hartzea errazteko eta sustatzeko, talde bakoitzari ondoen datorkion komunikabidea erabilita.

3.4. Kudeaketa eraginkor eta efizientea

ARDATZAK	ILDOAK
Administrazio hurbila	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren arretarako zerbitzuak: arreta efiziente eta hurbiletik konponbideak ematen, eta herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean. e-Administrazioa: zerbitzu publikoak jasotzeko teknologia berrien apustua egiten
Zorroztasuna eta kontrola	<ul style="list-style-type: none"> Efizientzia eta arrazionalizazioa: kalitatezko zerbitzu iraunkorrak garatzen eta finkatzen Kontrola eta ebaluazioa: zerbitzu eta laguntza publikoetara bideratzen den euro bakoitzaren benetako eragina egiaztatzen
Lankidetzak	<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzak instituzionala: leialtasuna eta elkarlana pertsonen zerbitzura Lankidetzak publiko-pribatua: administrazioak, enpresak eta hirugarren sektorea gure udalerrri eta lurraldeen garapenerako elkarrekin lanean
Zergak	<ul style="list-style-type: none"> Ekitatezko zerga sistema gure udalerrri eta lurraldeen garapenaren zerbitzura Zerga iruzurraren aurkako borroka: gizartearen kontzientziatu eta zero tolerantzia

Kudeaketa ekintza politikoaren funtsezko eremu bat da. Ez da nahikoa ideia onak edukitzea, aurrera eramateko gaitasunak ere behar dira, emaitzak lortu behar dira. Eta legalitatea errespetaturik eta denonak diren baliabideak zentzuz erabilia lortu behar dira emaitza horiek.

EAJ-PNVec kudeaketa esperientzia zabal eta ezaguna du. Gai izan gara gure lurraldea gaur arte eraldatu duten proiektuak arrakastaz kudeatzeko, egitasmo handiak eta txikiak. Kudeaketan arrakasta gaitasun horri eustea premia bat da gure udalerrri eta lurraldeetarako, eta aldi berean gizarteak eskatzen dizkigun zer berriak indartzen ditugu, zinez sinesten baitugu horietan: gardentasuna eta kontu ematea; parte hartzea, arrazionalizazioa eta efizientzia; eta ekonomikoki iraunkorrak diren politikak egitea.

Gure udalerrri eta lurraldeek euren ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen garapenerako behar duten kudeaketa bikaintasunari eutsi nahi diogu eta indartu.

Administrazio hurbila

- **Herritarren arreta zerbitzuak: arreta efiziente eta hurbiletik konponbideak ematen** ⇔ Pertsonenganako hurbiltasuna eta zerbitzu efiziente eta osoa izan behar dugu Administrazioaren eraldaketa hau gidatuko duen arrazoia. Uste dugu pertsonetikiko hurbiltasuna eta sintonia erabakigarriak direla galdutako konfiantza espazioa berreskuratzeko. Zerbitzuak eta jarduerak pertsonen ikuspegi integral batetik zehaztera eta ezartzera joango dira gure ahaleginak. Talde guztiekiko hurbiltasun handiagoa bultzatuko dugu, Administrazioa iristea erraztuaz, komunikazio bide berriak irekiaz eta administrazio prozedurak sinplifikatuaz. Zerbitzuak herritarrei hurbildu nahi dizkiegu, eskura dauden zerbitzu eta laguntzei balioa emanez eta beharren dituztenek jasotzeko moduan jarriaz. Aldi berean, sareko lana bultzatuko dugu, eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak publiko-pribatua bilatuaz, ematen diren zerbitzuen efizientzia eta eraginkortasuna hobetze aldera.
- **e-Administrazioa: zerbitzu publikoak jasotzeko teknologia berrien apustua egiten** ⇔ Administrazio berritzailea garatzea da gure helburua, herritarrei zerbitzu publikoak modu efiziente eta eraginkorragoan emango dizkien Administrazioa. Jarraitu egingo dugu e-Administrazioan aurrera egiten, zerbitzu publikoaren eboluzioa bultzatuaz, pertsonalizagarriak izan daitezen, proaktiboak, plataforma ezberdinetatik irisgarriak, erabiltzaileen beharretara egokituak eta erabilerrazak, eta kalitatea eta segurtasuna bermatuta izan dezaten. Horretarako, teknologia berrien erabilera optimizatzeke gai zian behar dugu, eta zuku guztia ateratzeko gauza. Aldi berean, teknologia berrietan konfiantza izatea bultzatuko dugu, e-Administrazioaren abantailen berri emanaz eta zerbitzu publikoak jasotzeko eta arreta izateko teknologia berriak erabiltzea herritarrik gehienentzat ezinezko zerbaitek bihurtuko duen "herritarren horma" sor ez dezala ziurtatuaz.

Zorroztasuna eta kontrola

- **Efizientzia eta arrazionalizazioa: kalitatezko zerbitzu iraunkorrak garatzen eta finkatzen** ⇔ Efizientzia politikak garatu behar ditugu gure zerbitzu publikoen kalitatea eta iraunkortasuna bermatzeko. Horretarako, sakondu egingo dugu toki administrazioen modernizazioan eta erreforman, herritarrentzako arreta eta zerbitzua hobetzeko, izapideen eskakizunak gutxienekora murriztuaz eta dossier administratiboen ebazpen denbora gutxienekora laburtuaz. Aldi berean, zuzen dimentsionatutako zerbitzuak bultzatuko ditugu, prozedurak, izapideak eta protokoloak sinplifikatuaz, sarbidea erraztuaz, eta deszentralizatuaz eta zerbitzuak herritarrei hurbilduaz, kostuak gutxituaz eta kalitatea handituaz.
- **Kontrola eta ebaluazioa: zerbitzu eta laguntza publikoetara bideratzen den euro bakoitzaren benetako eragina egiaztatzen** ⇔ Egitarauen eta laguntzen jarraipen eta kontrolean efizientzia handitu behar dugu, benetan behar dutenengana heltzen direla bermatzeko. Horretarako, kontrola hobetuko dugu, egoera pertsonal, sozial edo familiarragatik bizitza normal, duin eta betea bizitzeko zailtasunak dituzten herritarrentzako zerbitzuen prestazioan iraunkortasuna eta efizientzia bermatzeko. Aldi berean, politika publikoen ebaluazio kulturarantz joko dugu, gardentasuna eta erantzukizuna abiapuntu hartuta. Ildo horretan, ahaleginak egingo ditugu gizarte laguntzen benetako funtzioari balioa ematen, inklusio eta kohesio sozialaren tresna baitira eta desberdintasun sozialak txikitzeke balio baitute. Konpromisoa hartzen dugu, aldi-aldi, zorroztasunez eta gardentasunez, gure gizarterako hain oinarrikoak diren tresna hauen benetako eraginaz informatuko dugula, zurrumurru faltsuak gezurtatzeko eta talde batzuen estigma saihesteko.

Lankidetzak

- **Lankidetzak instituzionalak: leialtasuna eta elkarlana pertsonen zerbitzura** ⇔ Eragile eta maila ezberdinen artean koordinazio eta lankidetzak instituzionalerako formula berriak ezartzera bideratuko ditugu gure ahaleginak, jarduerak bateratzea eta sinergiak sorraraztea lor dezagun, bizi kalitaterako eta lurralde bakoitzaren garapenerako funtsezkoak diren gaietan maila instituzional guztien arteko lankidetzan sakonduaz, hala nola, zerbitzu sozialak, garraio publikoa, sustapen ekonomikoa eta enplegua. Aldi berean, udalerrien eta eskualdeen arteko harremanean hobekuntza bultzatuko dugu, lurraldearen eskualdekako egituraren aurrera egiteko.
- **Lankidetzak publiko-privatuak: administrazioak, enpresak eta hirugarren sektorea garapenerako elkarrekin lanean** ⇔ Sareko lana bultzatuko dugu. Lankidetzak publiko-privatuak sustatuaz eta erraztuaz, gure udalerriri eta lurraldeen garapen aukerak aprobetxatzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea eta efizientzia hobetzeko. Gizarte berrikuntzari lotutako enpresa ekimenak sustatu eta lagunduko ditugu, hirugarren sektorearekin eta herri administrazioarekin lankidetzak bilatuaz, eta lurraldea erronka sozialei ekitera zuzendutako produktu eta zerbitzu berriak diseinatuz, garatzeko eta testatzeko probaleku moduan erabiltzea proposatuaz. Aldi berean, hirugarren sektore efiziente eta profesionalizatua behar dugu, ekiten duen guztian eragin sozial handiagoa lor dezan.

Zergak

- **Ekitatezko zerga sistema gure udalerriri eta lurraldeen garapenerako zerbitzura** ⇔ Gure helburua euskal enpresa- eta industria-ehunaren eta herritarren errealitatearen arabera pentsatu, adostu eta diseinatutako zerga politika bat bultzatzen jarraitzea da. Ekitate, progresibotasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikazio printzipioak sendotuko dituen zerga politika bat, printzipio guztien artean oreka handiagoa bilatuaz. Aldi berean, gure ekonomiaren lehiakortasuna hobetzen lagunduko duen zerga sistema garatuko dugu, mikroenpresetarako eta ETEetarako egokia eta mesedegarria izango den esparru bat ezarriaz, enpresen egitura sendotuaz eta kapitalizatuaz, ikerketaren eta garapen teknologikoaren bidez eta enpresa ekimen berriak ager daitezen lagunduaz.
- **Zerga iruzurraren aurkako borroka: gizartea kontzientziatu eta zero tolerantzia** ⇔ Zerga iruzurra oso kaltegarria da gizarte osoarentzat. Diru sarrera publiko gutxiago izatea dakar, eta horrek zergak zintzo ordaintzen dituzten zergadunen zerga zama handitzen du; zerbitzu publikoen eta gizarte prestazioen kalitate maila baldintzaren du; eta eragile ekonomikoaren jarduerak distortsionatzen du. Azken batean, zerga iruzurra zerga sistema ororen ekitate faltarako elementu nagusia da eta herritarren elkarbizitzako printzipio oinarritzkoenak urratzen ditu. Azken urteotan zerga iruzurraren aurkako borrokan emaitza garrantzitsuak lortu baditugu ere, bide honetatik jarraitu behar dugu lanean. Irmotasunez jarraituko dugu zerga iruzurra borrokatzen, iruzur egindako euro bakoitza gure politika sozialetarako erabil dezakegun euro bat gutxiago dela ulertzen baitugu. Horretarako, iruzurra geldiarazteko eta intentzioa burutik kentzeko neurriak eta ekintzak gauzatuko ditugu.

4. Gure aktibo nagusia: gai diren pertsonak, frogatutako esperientzia eta erantzukizuna balio nagusi gisa

Gure aktibo nagusia: gai diren pertsonak, frogatutako esperientzia eta erantzukizuna balio nagusi gisa

Gure udalerrri eta lurralde historikoetako herritarrei konpromiso handi baina egingarri hauek aurkezten dizkiegu. Asmo handikoak izan behra dugu, erronkak garrantzitsuak direlako. Unea garrantzitsua da, erabakigarria, gauza asko dauzkagulako jokoan: oso krisi sakon baten ondoren susperraldi ekonomikoa sendotu, pertsona askorentzat lana berreskuratu, gure gizarte zerbitzuak finkatu...

Gure konpromisoak egingarriak dira gure **udalerrriak eta lurralde historikoak xehetasunez ezagutzen** baititugu. Hauteskunde hauetara hautagai aurkezten garen EAJ-PNVko gizon-emakumeok udalerrri bakoitza, auzo bakoitza, kale bakoitza igaro dugu. Enpresa garrantzitsuenak bisitatu ditugu. Gure herrietako elkarte bakoitzarekin hitz egin dugu. Pertsona adituekin egin dugu berba. Gure proposamenak errealitatea ezagutzetik eta pertsona askoren iritzi eta ekarpenetatik sortzen dira.

Baina, batez ere, egingarria dira **pertsonarik onenak aurkezten ditugulako. Gai diren pertsonak**, prestakuntza sendoa dutenak, gaitasun profesional handia, **kudeaketa esperientzia handia** dutenak bai eremu publikoan bai pribatuan. **Proiektuak errealitate arrakastatsu bihurtzeko gai diren pertsonak. Gure herriak hobetzeko gai.** Eta erantzukizun hori bete, **EAJ-PNVek berezkoak dituen balioak** kontuan hartuta: ahalegina, talde lana, entzuteko eta adosteko gaitasuna, gardentasuna, jokabide etikoa.

Eta berezi-bereziki, **ERANTZUKIZUNA balio moduan hartuta.** Kudeatu beharreko baliabideak, gure udal eta aldundien aurrekontuak, ez dira gureak. Solidarioak diren herritarrenak dira, solidarioak baina euren zergak bikain kudeatzeko eskatzen duten herritar guztien zerga ahaleginaren errealitatea dira. Ekitatea bilatzen dute, zorroztasunez eta efizientziaz. Konpromiso handi hori hartzen dugu, hau da, **beti guztion onerako jardun, araduraz kudeatu, onena eman gure udalerrri eta lurralde historikoen zerbitzurako. Eta gure kudeaketatik erantzun.**

Herria tokian tokiko ekintzatik eraikitzen jarraitzeko erantzukizuna. Herriz herri, ekinez!